



Ingurumen Estrategiaren Agiria Saila
32.zk. 2004ko Ekaina

ingurumena.net

Zure esku dago



IHOBE

Ingurumen Jardueta-erako Sektore Publikoa
Sociedad Pública de Gestión Ambiental

TOKIKO AGENDA 21

EKINTZA-PLANAK abian jartzeko gida

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LURRALDE ANTOLAMENDU
ETA INGURUMEN SAILA

DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL
TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE

Ingurumen Estrategiaren Agiria Saila

- **1.zk. 2000ko Azaroa.** "Ingurugiroan Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-Administrazioak Egingako Gastu eta Inbertsioen Inpaktu Ekonomikoa"
- **2.zk. 2001eko Maiatza.** "2001 Ekobarometro Soziala"
- **3.zk. 2001eko Urria.** "Ingurumena Euskal Autonomia Erkidegoan: Laburpena"
- **4.zk. 2002ko Urtarrila.** "Garapen jasangarriko Europako Batasunaren estrategia"
- **5.zk. 2002ko Otsaila.** "Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakin Arriskutsuen Inbentarioa" (Laburpena)
- **6.zk. 2002ko Apirila.** "Bizikletan,kerik gabeko hirietarantz"
- **7.zk. 2002ko Maiatza.** "Euskal Autonomia Erkidegoko Beharrezko Material Guztia. BMG 2002"
- **8.zk. 2002ko Uztaila.** "Garraioa eta Ingurumena Euskal Autonomia Erkidegoan. GI 2002 Adierazleak"
- **9.zk. 2002ko Abuztua.** "Sustainable Development in The Basque Country"
- **10.zk. 2002ko Urria.** "Ingurumen Adierazleak, 2002"
- **11.zk. 2002ko Azaroa.** "Berotegi-efektua Eragiten Duten Gasen Emisioen Inbentarioa Euskal Autonomia Erkidegoan 1990-2000"
- **12.zk. 2002ko Azaroa.** "Ingurumena eta Lehiakortasuna Enpresan"
- **13.zk. 2002ko Abendua.** "2002ko Industria Ekobarometroa"
- **14.zk. 2003ko Urtarrila.** "Hiria, haurrak eta mugikortasuna"
- **15.zk. 2003ko Urtarrila.** "Klima-aldaketa"
- **16.zk. 2003ko Urtarrila.** "Jasangarritasunerako hezi. Eskolako Agenda 21: eskolarentzako gida" (CEIDA)
- **17.zk. 2003ko Otsaila.** "Europako Erkidegoaren Ingurumeneko Seigarren Ekintza Programa"
- **18.zk. 2003ko Otsaila.** "Erreforma Fiskal Ekologikoa Euskal Herrian"
- **19.zk. 2003ko Apirila.** "Garapen Jasangarriari buruzko Johannesburg-eko Nazioarteko Goi-bilera"
- **20.zk. 2003ko Maiatza.** "Euskal Autonomia Erkidegoan Tokiko Jasangarritasunaren Adierazleak Kalkulatzeko Gida Metodologikoa. Tokiko Agenda 21-eko Adierazleak"
- **21.zk. 2003ko Maiatza.** "Ekoeraginkortasuna 2003"
- **22.zk. 2003ko Maiatza.** "Hirien plangintzan aplikatu beharreko jasangarritasun-irizpideak"
- **23.zk. 2003ko Uztaila.** "Berotegi-efektua Eragiten Duten Gasen Emisioen Inbentarioa Euskal Autonomia Erkidegoan (1990-2001)"
- **24.zk. 2003ko Iraila.** "Energia eta Ingurumena Euskal Autonomia Erkidegoan. 2003"
- **25.zk. 2003ko Uztaila.** "Zementuaren sektorearen ingurumen-ekarpena Euskal Autonomia Erkidegoko Garapen Jasangarriari (2003-2006)"
- **26.zk. 2003ko Uztaila.** "Sektore Kimikoko enpresek Garapen Jasangarriari egiten dioten Ingurumen-ekarpena 2003-2006"
- **27.zk. 2003ko Urria.** "Altzairugintza Sektoreko Enpresek Garapen Jasangarriari egiten dioten Ingurumen-ekarpena (2003-2006)"
- **28.zk. 2003ko Azaroa.** "Euskal Autonomia Erkidegoko 2003ko Ingurumen Adierazleak"
- **29.zk. 2004ko Otsaila.** "2002 Berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioen inbentarioa Euskal Autonomia Erkidegoan"
- **30.zk. 2004ko Martxoa.** "2004ko Ekobarometro Soziala"
- **31.zk. 2004ko Martxoa.** "Euskal Udalerriak autorik gabe 2003. Euskal Udalerriak Mugikortasun Iraunkorraren Bidean"
- **32.zk. 2004ko Ekaina.** "TOKIKO AGENDA 21. Abian Jartzeko Gida"

www.ingurumena.net/udala

Tokiko Iraunkortasuna lortzeko bidean Euskal Autonomia Erkidegoan

www.ingurumena.net

Gure Herriko Garapen Iraunkorraren inguruko Eusko Jaurlaritzaren orria

ARGITARATZAILEA: Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa – IHOBE, S.A.

DISEINUA: Dual XJ. Comunicación y Diseño

ITZULPENA: Elhuyar

© IHOBE 2004

LEGE GORDAILUA: BI-XXXX-04

TOKIKO AGENDA 21

EKINTZA-PLANAK
abian jartzeko gida





Sabin Intxaurreaga

Eusko Jauriaritzako Lurralde Antolamendu
eta Ingurumen Sailburua

A u r k e z p e n a

2 002-2020ko Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategian, udala hartzen da estrategiaren helburuak bete ahal izateko funtsezko erakundetzat. Horregatik, ezinbesteko konpromisoa eta baldintza da *“2006rako, 5.000 biztanle baino gehiago dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko udalerri guztiek Tokiko Agenda 21eko beren programa diseinatuta izatea, banaka edo eskualdeka”*.

Euskal herritarren ustez, udalek Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-politiketan duten zeregina garrantzitsua da; izan ere, 2004ko Ekobarometro Sozialean bildutako datuen arabera, euskal biztanleen % 66ren iritziz udalerri-maila da egokiena ingurumena babesteko erabakiak hartzeko.

Tokiko Agenda 21en Ekintza Plana epe laburreko eta ertaineko kudeaketa-tresna da, iraunkortasun-irizpideak udal-politikan sartzeko. Gida metodologiko hau tokiko ekintzen plan horien diseinua, ebaluazioa eta segimendua errazteko egin da.

Hitzetatik ekintzetara pasatzeko unea da. Lehen emaitzak agertzen ari dira, eta euskal biztanleek adierazi dute beren udalerriko ingurumen-egoera asko hobetu delaazken urteetan.

Egun, 160 udalerri baino gehiago ari dira beren Tokiko Agenda 21 garatzen, eta Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen % 90ek hartzen du parte. Zalantzarik gabe, apustu horrek epe ertainean euskal herritar guztion bizi-kalitatea hobetzea eragingo du.





A u r k i b i d e a



1. SARRERA	7
2. DEFINIZIOA	9
2.1. Zer da Tokiko Ekintza-plana?	9
2.2. Tokiko Ekintza-planaren Berezitasunak	9
2.3. Tokiko Ekintza-plana martxa jartzearen abantailak	11
3. TOKIKO EKINTZA-PLANAREN EGITURA ETA KARAKTERIZAZIOA	12
3.1. Tokiko Ekintza-planaren egitura	12
3.2. Tokiko Ekintza-planaren oinarrizko ezaugarriak	13
3.3. Ekintzen karakterizazioa	14
4. TOKIKO EKINTZA-PLANETAN INTEGRATU BEHARREKO ESTRATEGIA IRAUNKORRAK	15
4.1. Lurraldeari buruzko alderdiak	16
4.2. Ingurumen-bektoreak	17
4.3. Iraunkortasunaren faktore sozialak eta ekonomikoak	20
4.4. Udalkudeaketa eta komunikazioa	21
5. TOKIKO EKINTZA-PLANAREN DISEINU-PROZESUA	22
5.1. Prozesuan sartu beharreko oinarrizko alderdiak	22
5.2. Tokiko Ekintza-planaren gauzatze-faseak	23
6. TOKIKO EKINTZA-PLANA EZARTZEKO ETA KUDEATZEKO ESTRATEGIAK ETA TRESNAK	27
6.1. Tokiko Ekintza-planak eraginkorki ezartzeko oztopoak eta zailtasunak	27
6.2. Tokiko Ekintza-plana ezartzeko eta kudeatzeko estrategiak	27
7. EKINTZA-PLANAREN SEGIMENDUA ETA EGUNERATZEA	32
7.1. Ekintza-planaren programazioa, segimendua eta eguneratzea	32
7.2. Tokiko Iraunkortasunaren segimendua: Tokiko Iraunkortasun-adierazleak	34
8. BIBLIOGRAFIA ETA ERREFERENTZIAK	36
8.1. Bibliografia	36
8.2. Interneteko guneak	36
9. ERANSKINAK	37


I r u d i e n a u r k i b i d e a

1. irudia.	Gidaren eskema kontzeptuala	8
2. irudia.	Tokiko Ekintza-planaren ezaugarriak	9
3. irudia.	Tokiko Ekintza-planaren egitura	12
4. irudia.	Tokiko Ekintza-planaren diseinu-prozesuaren fluxugrama	25
5. irudia.	Tokiko Agenda 21en prozesuan parte hartzen duten udal-eragile moten egitura	30
6. irudia.	Tokiko Ekintza-planaren segimenduaren eta aldizkako programazioaren zikloa	34



T a u l e n a u r k i b i d e a

1. taula.	Tokiko Agenda 21en koordinazio-unitate teknikoaren jarduera eta funtzio orokorrak	28
2. taula.	Tokiko iraunkortasun-adierazle komunak Euskal Erkidego Autonomian	34



1. S a r r e r a

Tokiko Ekintza Planak Tokiko Agenda 21 delakoen ardatz eratzaileak dira. Plan horiek martxan jartzean, 1992ko ekainean Rio de Janeiron egin zen Ingurumenari eta Garapenari buruzko Munduko I Biltzarrean (Lurraren goi-bilera) ezarritako jarraibideei erantzuten zaie.

Lurraren I. goi-bileraren esparruan, besteak beste, batetik, Rioko deklarazioa izeneko dokumentua onartu zen. Dokumentu hartan, estatu guztiek garapen-eredu iraunkorrerantz aurrera egiteko konpromiso politikoa hartu zuten. Eta bestetik, Agenda 21 onartu zen. Agenda horrek ekintza-plan global eta zabala osatu zuen, eta han ezarri ziren kolektiboak jarraitu beharreko estrategiak XXI. mendean aipatutako iraunkortasun hori lortzeko.

Agenda 21en, tokiko agintarien parte-hartzearen eta gidaritzaren beharra onartzen zen, Agendaren printzipioak esparru lokalean sartzeko. Zehazki, 28. kapituluan, tokiko agintariak eta udalerrriak bultzatzen zituen beren Tokiko Ekintza Plana idaztera eta gauzatzera. Ekintza-plan hori Tokiko Agenda 21 gisa zehaztuko zenaren oinarritzko elementua izango zen.

1994an, Europako laurogei agintaritza lokaletako 600 parte-hartzailek baino gehiagok –Rioko Biltzarrearen erreferentzia-esparruaren barruan– Aalborg-eko Gutuna izeneko agiri zabala onartu zuten. Dokumentu hartan, Europako hiriek eta herriek beren tokiko ekintza-plana idazteko borondatea adierazi zuten. Gaur egun, Europako 5.000 tokiko agintarik baino gehiagok abiarazi dituzte Tokiko Agenda 21eko prozesuak.

2002ko abuztuan Johannesburg-en egin zen Ingurumenari eta Garapenari buruzko II. Biltzarrean, 10 urte lehenago proposatutako iraunkortasun-helburuen lorpen-maila ebaluatu zen, eta, besteak beste, Tokiko Agenda 21en garapena baloratu zuten modurik aipagarrienean aurrera egin zuen alderdi gisa.

Euskal Autonomia Erkidegoan, 2002an onartu zen Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020):

- **2020ko Etorkizuna:** 2020ra bitartean garapen iraunkorraren eredu berri baten oinarriak ezartzea.
- **Hazkunde ekonomikoa eta ingurumenaren babesa bateratzea:** Epe luzera, hazkunde ekonomikoa, gizarte-kohesioa eta ingurumenaren babesa batera joan daitezen lortzea.
- **Ingurumen-sistema:** Ingurumen-sistema orekatua eta gure aniztasun ekologikoaren eta soziokulturalaren adierazgarri dena finkatzea.
- **Integrazio sektoriala:** Erakunde publikoen eta eragile sozialen artean konpromisoa eta elkarlan aktiboa lortzea, garapen-eredu berria zehazteko eta defendatzeko.

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila, IHOBE, S.A. Sozietate Publikoaren bidez, euskal udalerrietan Tokiko Agenda 21en diseinua eta ezartzea errazteko tresnak garatuz joan da. 1999an, EUDELekin batera hasi zen udalerrien taldean Tokiko Agenda 21 diseinatzeko metodologia prestatzen Euskal Autonomia Erkidegoko 9 udalerrien parte-hartzearekin. Metodologia horri Udaltalde 21 izena jarri zitzaion, eta 90 udalerrri baino gehiago ari dira erabiltzen beren Tokiko Agenda 21 diseinatzeko. Udalerrri horiek 10 ‘Udaltalde 21’ lan-talde osatzen dituzte.

2002ko abenduan, UDALSAREA 21 Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarea sortu zen. Sare hori osatzen dute iraunkortasuna lortzeko onartutako ekintza-planarekin lanean ari diren udalerriek. Hala, Tokiko Agenda 21en prozesuei laguntzeko asmoa, oro har, euskal udalerrri guztiei zuzendurik dago, udalerrri horiek Tokiko Agenda 21en prozesuan duten aurrerapen-maila edozein dela ere.


Testuinguru hori eta Tokiko Agenda 21en prozesuak modu eraginkorrean garatzeko sortzen diren beharrak kontuan hartuz, gida honen oinarritzko helburuak hauek dira:

- Tokiko ekintza-planak **diseinatzeko, ezartzeko** eta etengabe **ebaluatzen** oinarritzko **printzipioak, irizpideak eta alderdi metodologikoak** eskaintzea Iraunkortasuna-Tokiko Agenda 21erako.

- Ekintza-planak **Tokiko Agenda 21eko** prozesuen esparruan ezartzea **sustatzea eta bultzatzea** Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietan.

Dokumentua sei ataletan banaturik dago, 1. irudia. Gidaren eskema kontzeptuala. Irudian erakusten den bezala. Irudian, ekintza-planak modu eraginkorrean garatzeko behar diren alderdi teorikoak eta oinarritzko tresnak laburki azaltzen dira.

Gida hau Tokiko Agenda 21eko prozesuaren faseetan (prozesua hasteko interesarekin, diseinuaren prozesuan edo ezartze-fasean) parte hartzen duten Euskal Autonomia Erkidegoko udal-teknikarientzat eta udalez gaindikoenentzat eta hautetsientzat egin da batik bat, eta modu osagarrian, tokiko erakundeentzat eta eragile ekonomikoentzat, baita udalerriei Tokiko Agenda 21en gainean aholkatzen dien ingurumen-eta komunikazio-enpresentzat ere.



1. irudia. Gidaren eskema kontzeptuala.



2. Definizioa

2.1. Zer da Tokiko Ekintza-plana?

Tokiko Ekintza-plana **tokiko kudeaketa eta politikak iraunkortasunaren alde** zuzentzeko **borrondatezko tresna** bat da, eta lortu beharreko helburu-multzo baten bidez eta eskala loka-lean hainbat urteko epean gauzatu beharreko ekintzen bidez egituratzen da. Ekintza-plana **Tokiko Agenda 21**en funtsezko tresna **eratzaillea** da.

2.2. Tokiko Ekintza-planaren Berezitasunak


Udalerriek hainbat plangintza-tresna erabili dituzte orain arte beren udalerriko eremuetan garatu beharreko erabilerak eta jarduerak zehazteko eta arautzeko, ekintzak eta inbertsioak sektoreen arabera programatzeko edo tokiko garapeneko helburuak zehazteko.

Hiri-plangintzako hainbat elementu, inbertsioen eta jardueren programak edo plan sektorialak eta, kasu batzuetan, plan estrategikoak Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien ohiko tresna dira politika publikoak kudeatzeko eta zehazteko.

Tokiko Ekintza-planek tresna horien ezaugarri tradizional batzuk konbinatzen dituzte, garapen iraunkorra funtsezko helburu gisa integratzen dute eta herritarren parte-hartzea plangintza-prozesuaren berezko elementu gisa.

Tokiko Ekintza-plana honelakoa izatea sustatu behar da:

- Iraunkortasunaren aldekoa
- Estrategikoa
- Zeharkakoa
- Parte hartzekoa
- Eraginkorra



2. irudia. Tokiko Ekintza-planaren ezaugarriak.

ITURRIA: Guk egina



Iraunkortasunaren aldekoa

Tokiko Ekintza-planaren funtsezko helburua da udalerrira iraukorragorantz aurrera egitea, **aurrerapen ekonomikoa, zuzentasun soziala eta ingurumenaren babesa bateratzea** sustatzen eta bateratzen uzten duena eta **herriarren bizi-kalitatea hobetzen** duena.

Iraunkortasun-ikuspegiak eskatzen du gure udalerriri orain zentzumenez kudeatzea, hurrengo belaunaldiak etorkizunean kalitatezko udalerriri eta planeta eduki ditzaten.

Horretarako, tokiko ekintza-planak iraunkortasun-irizpideak modu praktikoan eta zehatzean aplikatzen saiatzen dira herri mailako zenbait arlotan esku hartzean, eta, hala, Tokiko Agenda 21en prozesuari ikusgaitasuna eta zehaztasuna ematen zaizkio.

Gida honetako 4. atalean, herri mailako kudeaketaren zenbait arlotan aplikatu beharreko iraunkortasun-helburu eta -estrategiak biltzen dira.

Estrategikoa

Tokiko Ekintza-planak udalerrian aurrez egindako azterketa eta diagnostiko zabal batean oinarritzen dira. Azterketa horren bidez, gaur egungo barne-ahulezia eta -indar nagusiak eta etorkizuna muga dezaketen aukerak eta mehatxuak identifikatzen dira.

Tokiko ekintza-planak, batetik, plangintza estrategikorako tresna dira, udalerrira gisa **lortu beharreko helburuak eta ikuspegiak** ematen baitituzte estatutik eta egungo joeretatik abiatuz; eta, bestetik, hainbat sektoretako **ikuspegiak eta lehentasunen adostasuna** dira. Hala, **etorkizuneko hausnarketa eta aurre hartzeko apustu kontzientea osatzen dute herriko politika eta kudeaketa** iraunkortasun handiagorantz **bideratzeko**.

Zeharkakoa

Aurretiko diagnostikoak eta plangintzak berak udalerririko hurbilketa zabal eta orokorrari erantzun behar diote, alderdi sozialek, ekonomikoek eta ingurumenekoek beren artean lotura estua baitute.

Zeharkakotasunak esan nahi du udalerririko iraunkortasunerako funtsezkoak diren **arlo guztiak eta haien arteko erlazioak kontuan hartzea**. Hori dela eta, tokiko ekintza-plana egitean, **irtenbide globalak** sustatzen saiatzen da, eta ez sektorialak bakarrik, horrek ekar ditzakeen sinergia positiboak bultzatuz.

Ahalik eta plan globalenak egiteko interesa izan arren, udalerrira bakoitzak ezarri behar du tokiko ekintza-planari eman nahi dion edo diezaiokeen irismena. Horretarako, nahitaezkoa da plangintza handiagoa behar duten arloak identifikatzea, zeinen artean dagoen erlazio handiagoa udalerrian, eta zein baliabide tekniko, politiko eta ekonomiko dituen zehaztea.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Europaren kasuan, gehien erabilitako ereduak iraunkortasunaren ingurumen-alderdien plangintzari eman diote lehentasuna, eta alderdi sozialak eta ekonomikoak bigarren mailan utzi dituzte. Zalantzarik gabe, errealitate hori faktore hauek bultzatu dute:

- Ingurumen-aldagaia orain dela gutxi sartu da herriko garapen- eta kudeaketa-ereduan, eta, beraz, horrexek dauka plangintza-tresna baten premia larria. Askotan, alderdi sozialek eta ekonomikoek bazuten lehendik ere tresna hori.
- Udalerririko ingurumen-alderdi guztien tratamendua –lurraldeko alderdiak (hirigintza, mugikortasuna, ingurune naturala) eta ingurumen-bekto-reak (ura, hondakinak, energia, atmosfera, akustika) integratuz– kontzeptuzko eta kudeaketako

erronka berriztatzailea eta konplexua da udaleko erakundeen esparruan. Gainera, normalean, tramendu integratuaren onura eta sinergia modurik zuzenean lortuko dituen eremua da.

- Alderdi sozialak, ekonomikoak eta ingurumene-koak osorik integratzen dituen plangintzak gidaritza indartsua eta zabala behar du eta udal-politika eta –teknika eskatzen ditu prozesuari bideragarritasuna emateko. Eta hori, sarritan, ez da hala izaten Tokiko Agenda 21eko prozesuen hasieran.

Parte hartzekoa

Ekintza-planen garapen-prozesuaren ezaugarria da herriko errealitatearen diagnostikoaren eta plangintzaren irizpide teknikoak parte hartzeko ekintzekin integrazioa. Horrek balio erantsi berezia eta garrantzitsua ematen die Tokiko Agenda 21eko prozesuei, eta beste plangintza-tresna batzuetatik bereizten ditu.

Komeni da parte-hartze hori herriko eragile gehienak integratuz eta udalerrian egon daitezkeen hainbat sentikortasun eta ikuspegiaren ordezkartza handiena lortuz egitea.

Parte-hartzeak Tokiko Agenda 21eko prozesuaren fase guztietan egon behar du: diagnostikoan, tokiko ekintza-planaren diseinuan eta ekintza-plana ezartzeko segimenduan eta ebaluazioan.

Parte-hartzea duen ekintza-planak honetarako aukera ematen du:

- **Oinarrizko diagnostiko osatuagoa eta hobeia** izatea, biztanleen pertzepziozko alderdiak eta udala egunetik egunera kudeatzen dutenen ezagutza teknikoak integratzen dituen.
- Udalerriko hainbat sektoreen ikuspegiak eta esku hartzeko mekanismoak kontuan hartzen dituen tokiko ekintza-plana diseinatzea, herriaren lehentasunak modu zabalagoan eta egokiagoan integratuz eta **planaren ondorengo gauzatzea bideragarritasun sozial, tekniko eta ekonomiko handiagoz** hornituz.
- **Herriko eragile guztiak** tokiko ekintza-planaren ezarpenean inplikatzeko, **aldez aurretik egindako** diseinuan parte hartu izanagatik.

Eraginkorra

Tokiko Ekintza-plana behin diseinatuta dagoenean, **tresna erabilgarria eta aplikagarria** izan behar du udal-kudeaketarako.

Horretarako, planak behar bezala karakterizatuta egon behar du funtzionala izan dadin, eta, ondorioz, egin beharreko ekintzak ere behar bezala zehaztuta egon behar dute, arduradunak izendatuta eta gauzatzeko egutegiak ezarrita. Atal hori 3. atalean azaltzen da zehatzago.

2.3. Tokiko Ekintza-plana martxan jartzearen abantailak

Udalerrientzat, tokiko Ekintza-plana martxan jartzearen abantailetakoa bat da **iraunkortasun-izaerako eta kalitate hobeko ekintza gehiago** bultzatzea daitezkeela. Hala, aldi berean, herritarren egungo eta etorkizuneko bizi-kalitatean positiboki eragiten da.

Udaletan, plana eraginkortasunez ezartzen bada, errazago sartuko dira **iraunkortasun-irizpideak** haien funtzionamenduan, eta errazago lortuko dira **sailen arteko koordinazio eta komunikazio hobeak**. Horrek udal-kudeaketa hobeia ekarriko du.

Aipatutako bi onura nagusi horiekin batera, Ekintza-plana – Tokiko Agenda 21 martxan jartzean, alderdi hauek bultzatzen dira:



- **Herriko errealitatearen ezagutza** hobetzea.
- Administrazioa eta herriko komunitatea iraunkortasunean **hezte**a.
- Gizarte-kohesioa, herriko nortasuna eta **parte-hartzearen** kultura indartzea.
- **Informazioa** biztanle **guztien** esku jartzea.
- **Herriaren irudia** hobetzea.
- Epe luzera eta zeharka **planifikatzea**.
- Udal-politikak optimizatzea eta **eraginkortasun** handiagoz hornitzea.
- **Udal-antolakuntza optimizatzea**.
- Ekintzak gauzatzeko, udalez gaindiko **baliabide ekonomikoak** eskuratzen laguntzea.




3. Tokiko Ekintza-planaren egitura eta karakterizazioa

3.1. Tokiko Ekintza-planaren egitura

Tokiko Ekintza-planak **lerro estrategikoen** definizioan oinarriturik egituratzen dira, eta, hain zuzen, lerro horiek planaren funtsezko helburuak osatzen dituzte.

Lerro estrategiko bakoitzak helburu espezifikoak ditu eta helburu horiek **ekintza-programetan** adierazten dira. Programa horiek **ekintza-multzo** batean gauzatzen dira, eta horiek planaren oinarritzko batasuna eta eraginkortasuna osatzen dute, eta aldi berean, karakterizazio zehatza eta espezifikoa eskatzen dute.



3. irudia. Tokiko Ekintza-planaren egitura.

ITURRIA: Guk egina

Lerro estrategikoak formulatzean islatzen diren helburuek, ahal den neurrian, ezaugarri hauek izan behar dituzte:

- **Ulergarriak:** Herritarrek uler ditzaten eta proposatutako helburuarekin bat etor daitezten.
- **Espezifikoak:** Udaleko errealitatearen elementurik adierazgarrienak eta funtsezkoenak isla ditzaten.
- **Integratzaileak:** Hainbat arloren parte hartzea eskatzen duen mugarría proposatzea, arlo horiek beren artean udalerrian duten erlazioa adieraz dezaten.

Dena den, horrek ez du esan nahi hainbat helburu estrategiko sektorial egon ez daitezkeenik eta horiek, gainera, beste udalerri batzuetakoekin bat etor ez daitezkeenik.

3.2. Tokiko Ekintza-planaren oinarrizko ezaugarriak

Zein ekintza-mota hartzen ditu kontuan?

Tokiko Ekintza-planek hainbat motatako ekintzak dituzte, lerro estrategiko edo ekintza-programa gisa planteatutako helburu jakin bat lortzeko bidean aurrera egiten laguntzen dutenak. Ekintza horiek maila hauetan sailka daitezke:

- **Sentsibilizazioa, parte-hartzea eta prestakuntza**
Iraunkortasunerako trebakuntza eta hezkuntza-rekin, eta herritarren eta komunitate horretako hainbat eragileren parte-hartzea sustatzearekin lotutako jarduerak.
Adibideak: Eskoletako hezkuntza-kanpainak, Parte hartzeko organo egonkor bat sortzea Tokiko Agenda 21en segimendua egiteko, Eguzki-energiaren instalatzaileentzat ikastaroak antolatzea.
- **Araudia**
Arau hauek gehitzea edo aldatzea: lurraren erabilerak eta jarduerak arautzen dituztenak, ingurunearekiko inpaktuak mugatzen dituztenak, ingurumenaren kudeaketa hobetzen dutenak edo jasangarritasunerako prozesuak eta jarrerak bultzatzen dituztenak eta ingurumen-kostuen edo -abantailen barneratzen laguntzen dutenak.
Adibideak: Eguzki-energia sustatzen duten aginduak egitea, Aginduak udalez gaindiko ingurumen-arau berrienetara egokitzea, Lurzoru urbanizazioaren erabileraren erregulazio-plan berezia egitea.
- **Pizgarri ekonomikoak**
Herritarren eta enpresen aldetik iraunkortasunerantz zuzendutako prozesuak eta jarrerak bultzatzen dituzten zergak, diru-laguntzak, finantziario-leerroak edo beste tresna ekonomiko batzuk aldatzea, ingurumen-kostuak eta -abantailak barneratzen laguntzeko.
Adibideak: Zerga-deskontuak egitea eguzki-kolektoreen instalaziorako obrak egiteko baimena ematean.
- **Ekipamenduak eta azpiegiturak**
Ekipamenduak erosteko edo azpiegiturak bideratzeko ekintzak.
Adibideak: Ur-araztegiak eraikitzea, plaka fotovoltaiakoak instalatzea, bizikletentzako bideak eraikitzea.
- **Iraunkortasun-irizpideak integratzea**
Udal-kudeaketarekin edo tokiko administrazioaren funtzionamenduekin lotutako hainbat

alderditan iraunkortasun-irizpideak kontuan hartzen dituzten ekintzak.

Adibideak: Hiri-plangintzan eta udalak produktuak erostean, ingurumen-irizpideak integratzea, tokiko administrazioaren funtzionamenduan jardunbide egokiak integratzea.

- **Azterketak eta planak**

Iraunkortasun-mailari buruzko arlo, prozesu edo arazo nagusiak hobeto ezagutzeko edo baloratzeko, edo Tokiko Ekintza-planak gauzatu ezin dituen ekintzak definitzeko aukera ematen duten azterketak egitea.

Adibideak: Bideen inbentarioa egitea, konpostaje-instalazio baten bideragarritasun-azterketa egitea, eraikin publikoen auditoria energetikoa egitea.

- **Kudeaketa**

Iraunkortasuna lortzen laguntzen duten hainbat ekintza, udal-kudeaketarekin lotuta daudenak, eta ingurumen-kontrola, tramitazioak, esku-hartzeen eskaera eta beste hainbat alderdi kontuan hartzen dituztenak.

Adibideak: Azpiegitura jakin batek ingurumenean duen eraginaren segimendua egitea, ziklomotorren maila akustikoa kontrolatzea, udalez gaindiko administrazio baten esku-hartzea eskatzea.

Zeinek gauzatzen eta finantzatzen du tokiko Ekintza-plana?

Tokiko Ekintza-plana gauzatzearen eta finantzatzaren ohiko arduradun nagusia udala da. Lehendik dituen arlo tekniko ia guztiak neurri handiagoan eta txikiagoan inplikatzeko ditu, baita tokiko administrazioarekin lotutako enpresa emakidadunak ere.

Hertsiki tokiko administrazioa denaz gain, Ekintza-plana gauzatzean, herriko ahalik eta eragile gehienek parte hartzea komeni da, arlo ekonomikoa eta soziala, ikastetxeak eta herritarrak, oro har, ekintza jakinak ezartzeko lanean parte har dezaten.

Udalerriaren arabera, planak osotasunean garatzeko funtsezkoa izango da udalaz gaindiko tokiko erakundeek (mankomunitateak, eskualdeko garapen-agentziak, koadrilak...) parte hartzea, bai arlo jakin batean dituzten eskumenengatik, eta bai Tokiko Agenda 21en prozesuaren dinamizazioan kasu jakinetan eduki dezaketen ginkizunagatik.

Azkenik, garrantzitsua izango da Tokiko Ekintza-planaren funtsezko arloetan (adibidez, uraren saneamendua, industria-hondakinen kudeaketa edo poluzio industrialaren kontrola) eskumenak eta baliabideak dituzten udalaz gaindiko administrazioen parte-hartzea lortzea.



Tokiko Ekintza-planak zein gauzatze-epe izaten du?

Tokiko Ekintza-planek hainbat urteko programazioa izaten dute eta denbora-escala desberdinetan ematen dira. Euskal Autonomia Erkidegoaren testuinguruan, gehienez bost urteko epea ezarri ohi da, eta ekintzak honela banatzen dira: epe laburrekoak (urtebete), epe ertainekoak (2-3 urte) edo epe luzekoak (4-5 urte).

Ekintzen gauzatze-epeak hainbat irizpideren arabera esleitzen dira, besteak beste, ekintzaren lehentasuna, bideragarritasun ekonomikoa, beste ekintza batzuk baldintzatzen dituen ekintza eratzea edo ekintza ezartzeko behar den denbora.

Plana kudeatzeko, hasierako urte anitzeko programazioa udalen ohiko urtebeteko kudeaketa-programaziora pasatu beharko da, zehaztutako gauzatze-epeen arabera.

3.3. Ekintzen karakterizazioa

Tokiko Ekintza-planaren eraginkortasun eta funtzionalitate maximoa ziurtatzeko, beharrezkoa da ekintza bakoitza behar bezala zehaztuta egotea, kudeaketa-tresna gisa erabili ahal izateko, betiere, kontuan hartuz, planaren helburua ez dela plan sektorial baten (adibidez, mugikortasun-plana, saneamendu-plan zuzentzailea) edo hirigintzako plan baten (hiri-antolakuntzarako plan orokorra edo plan partziala) zehaztasun-maila lortzea.

Ekintza bakoitzak fitxa deskribatzaile bat dauka eta fitxa horretako eremuak aldatu egin daitezke, baina oinarritzko batzuk izango lituzke, hain zuzen, hurrengo koadroan erakusten direnak eta eranskinean agertzen den ekintza-adibidean ikusten direnak.

EKINTZA BATEN OINARRIZKO FITXA DESKRIBATZAILEA

EKINTZAREN IZENBURUA

- Erreferente sintetikoa, baina ulergarria.

DESKRIBAPENA

- Ekintzaren oinarritzko definizioa eta karakterizazioa, hura gero gauatzeko beharrezkoak diren gutxienezko elementuak ematen dituena.

GAUZATZE-/EZARTZE-EPEA

- Ekintza gauatzeko edo ezartzeko gehieneko epea: *motza (0-1 urte), ertaina (2-3 urte) edo luzea (4-5 urte).*

PERIODIKOTASUNA

- Ekintza egiteko proposatutako maiztasuna.

LEHENTASUNA

- Ekintzaren lehentasun-maila (*altua, ertaina, baxua*) adierazten du, ekintzaren ingurumen-eraginaren, eragin sozialaren edo ekonomikoaren arabera, osasunean duen arriskua minimizatzen laguntzeagatik edo preskripzio arau-emileari erantzuteagatik.

KOSTUA

- Ekintza gauatzeko edo ezartzeko kostu zenbatetsia, ekintza bera martxan jartzeko eta mantentze-lanak egiteko kostuak barne.

ERAKUNDEAK

- Ekintza gauatzean edo ezartzean parte hartzen duten erakundeak.

FINANTZIAZIOA

- Ekintzaren finantziazio ekonomikoan parte hartzen duten edo har dezaketen erakundeak.

ADIERAZLEAK

- Euskal Autonomia Erkidegoko Tokiko Iraunkortasun Adierazleen Sistemaren adierazlea edo adierazleak, ekintzarekin zuzenean edo zeharka lotuta daudenak.

GAUZATZEAREN KONTROLA

- Ekintzaren garapen- edo ezartze-maila adierazten du (*hasteko zain, hasita, aurreratua, amaitzen, amaituta*).



4. Tokiko Ekintza-planetan integratu beharreko iraunkortasun-estrategiak

Estrategia iraunkorrak udalerriek arlo askotan esku-hartzea eskatzen du. Arlo horiek Tokiko Ekintza-planean duten garrantzia, hain zuzen, udalerriaren araberakoa eta planak lerro estrategikoetan eta programetan duen egituraren araberakoa izango da.

Kapitulu honetan azaltzen da esku-hartzean funtsezkotzat jotzen diren arlo bakoitzarentzat erreferente gisa hartu behar diren oinarrizko helburu iraunkorren multzoa, eta helburu horiek honela sailka daitezke:

Lurraldeari buruzko alderdiak

- Lurralde-antolamendua, hirigintzako plangintza eta hiriko gunea
- Ingurumenaren kudeaketa eta biodibertsitatea
- Mugikortasuna

Ingurumen-bektoreak

- Uraren zikloa
- Hondakinak
- Energia
- Akustika
- Jardueren ingurumen-kudeaketa
- Ingurumen-arriskuaren kudeaketa

Iraunkortasunaren faktore sozialak eta ekonomikoak

- Garapen soziala
- Garapen ekonomikoa

Udal-kudeaketa eta herritarren parte-hartzea

- Udal-antolakuntza eta -kudeaketa
- Hezkuntza eta parte-hartzea

Hurrengo koadroetan, Tokiko Ekintza-planean sartu behar diren helburu orokorrak eta espezifikak biltzen dira, baita horiekin lotutako erreferentzia-ekintza adierazgarri batzuk ere.

4.1. Lurraldeari buruzko alderdiak

IRAUNKORTASUN-HELBURUAK: LURRALDE-ANTOLAMENDUA, HIRIGINTZAKO PLANGINTZA ETA HIRIKO GUNEA

Hazkundearen mugak lurraldearen ezaugarrien, sistema naturalen eta baliabide naturalen erabilgarritasunaren arabera zehaztea

- Lurraldearen karga-ahalmena ebaluatzea udal hirigintzako plangintzaren berrikuste-lanetan.
- Hirigintzako plangintzaren ingurumen-eraginaren ebaluazioa egitea.

Hirigune degradatuak berreskuratzea

- Degradatutako auzoetarako berritze-planak egitea.
- Eraikinen birgaitzea sustatzea.

Auzo guztietan, ekipamendu-hornikuntzak eta berdeguneak hobetzea

- Berdeguneen eta ekipamenduen hurbiltasuna biztanle guztiei bermatzea.
- Parkeak eta berdeguneak planifikatzea berdeguneen benetako sarea osa dezaten.

Erabilera-aniztasuna sustatzea hiriko hainbat sektoretan

- Hiriko hainbat bizitegi-auzo edo -sektoretan erabilera-aniztasuna ahalbidetzeko behar diren zehaztapenak sartzea plangintzan.

- Zerga edo beste tresna batzuen bidez, auzoetan ekintza dibertsifikatuen ezarpena bultzatzea.

Jendeak etxebizitza duin bat izateko lan egitea

- Auzo jakin batzuetan *marjinalitate-poltsak* ez eratzeko neurriak ezartzea.
- Familia-unitate mota berrien etxebizitza-beharrei erantzuna ematea.

Ondare historikoa eta arkitektonikoa zaintzea

- Ondarea zaintzeko legezko tresnak izatea.
- Ondare-eraikinen zaintza bermatzeko, haienezako funtzio berriak aurkitzea.
- Ekimen pribatuak ondarea zaintzeko bidea egitea.

EKINTZA ADIERAZGARRIAK

- Hirigintzako plangintzetan, hiri-lurzorua eta lurzoru urbanizagarriaren mugak lantzeko protokolo bat zehaztea integrazio paisajistikoaren irizpideekin.
- Nekazaritza-garapenerako plan berezia prestatzea.
- Hiriko paisaiari buruzko ordenantza bat idaztea.
- Etxebizitza hutsak edukitzea zigortzen duten zerga-politikak ezartzea.

IRAUNKORTASUN-HELBURUAK: INGURUMENAREN KUDEAKETA ETA BIODIBERTSITATEA

Interes ekologikoa eta paisajistikoa duten guneak eta elementuak zaintzea eta berreskuratzea

- Lotura ekologikoko guneak eta korridoreak identifikatzea eta zaintzea.
- Uretako eta erriberako ekosistemak egoera onean mantentzea.
- Natur gune babestuen erakunde kudeatzailerekin elkarlanean aritzea.
- Interes berezia duten gune eta elementuen babesa sustatzea.
- Interes berezia duten edo mehatxupear dauden animalia- edo landare-espezieak zaintzea.

Natur guneen eta gune erdinaturalen kudeaketa egokia sustatzea

- Habitaten hobekuntza bultzatzea.
- Gune degradatuak berreskuratzea.
- Lurzoru urbanizaezinen erabileren eta jardueren ezarpena kontrolatzea eta urbanistikoki antolatzea.
- Ingurumena errespetatzen duten nekazaritza-jardunbideak bultzatzea.

Azpiegituren eta hiri-hazkuntzaren inpaktuak murriztea

- Hirigintzako plangintzari paisaia eta ingurumena zaintzeko irizpideak gehitzea.
- Ingurumen-inpaktuari buruzko azterketak eskatzea azpiegiturretarako eta hiri-hazkuntzarako.

- Hesi-efektua duten azpiegitura linealak iragazkortzea.

Natur ondarea sozialki baloratzea

- Udalerriko balio naturalen eta paisajistikoaren berri ematea.
- Natur ingurunearekin lotutako ingurumen-hezkuntza bultzatzea.
- Udalerriko natur inguruneari eta paisaiari buruzko ikerketa-lanak sustatzea eta haien emaitzen berri ematea.
- Erabilera sozial handia duten natur guneak antolatzea.

EKINTZA ADIERAZGARRIAK

- Interes naturala eta paisajistikoa duten elementuen katalogo arau-emailea onartzea.
- Ingurumena errespetatzen duten nekazaritza-jardunbideen bidez landutako produktuak merkaturatzeko bideak. finantzatzeko formulei buruzko azterketa egitea.
- Natur ingurunea eta paisaia aztertzei bekak sortzea.
- Txangorako ibilbideak eta paseatzeko bideak informazio didaktikoarekin seinalatzatzea.

IRAUNKORTASUN-HELBURUAK: MUGIKORTASUNA

Garraio kolektiboa sustatzea

- Garraio kolektiboko zerbitzuen eskaintzak hobetzea.
- Garraio kolektiboari buruzko informazioa gehitzea.
- Garraio kolektiboak erabiltzen lagunduko duten tarifa-politikak ezartzea.
- Garraio kolektiboa sustatzeko kanpainak egitea.

Joan-etorriak oinez eta bizikletaz egiteko moduan urbanizatzea udalerria

- Gune publikoa oinezkoentzat eta bizikletan ibiltzeko seguru eta eroso izateko moduan urbanizatzea.
- Traba arkitektonikoak murriztea kaleetan eta eraikin publikoetan.
- Auzoetara eta intereseko zentroetara oinez eta bizikletaz joatea sustatzen duten kale-sareak sortzea.
- Lehenasunez oinezkoentzat diren kale-kopurua handiagotzea.

Mugikortasun-arazoak eta -fluxuak konpontzea garraio publikoari eta motorrik gabeko joan-etorriei lehenasuna emanez

- Kaleen hierarkia eta beren funtzioak argi eta garbi zehaztea mugikortasun iraunkorraren eredu kontuan hartuz.

- Kaleak esleitutako funtzioen arabera urbanizatzea.
- Aparkatzeari buruzko arazoak mugikortasun iraunkorraren testuinguru globalean planteatzea udalerrian.
- Istripu-tasa murriztea.

Bide-hezkuntza eta ohitura iraunkorrak sustatzea mugikortasunean

- Bizikletaz eta oinez ibiltzea sustatzeko kanpainak egitea.
- Oinezkoekiko eta txirrindulariekiko errespetua indartzea.

EKINTZA ADIERAZGARRIAK

- Mugikortasun iraunkorrerako udal-plana egitea.
- Istripu-tasen puntu beltzak identifikatzea eta hango segurtasuna hobetzea.
- Traba arkitektonikoak kentzeko plana egitea.
- Ikasleentzako eta ekipamendu nagusietara oinez sartzeko ibilbide seguruak ezartzea.

4.2. Ingurumen-bektoreak

IRAUNKORTASUN-HELBURUAK: URAREN ZIKLOA

Ur-baliabideak behar bezala kontrolatzea eta kudeatzea

- Ur-baliabideen egoeraren eta bilakaeraren kontrolak sistematizatzea.
- Uraren kudeaketa integratua sustatzea, erantzukizuna duten administrazioen arteko lankidetzaren bidez.

Ur-kontsumoa zentzuzkoa izan dadila egitea sektore guztietan

- Hornidura-sarearen mantentze-lan eta hobekuntza egokiak garatzea.
- Ur araztuen eta euri-uren ustiapenean aurrera egitea.
- Administrazioan ur-kontsumoa optimizatzea.
- Etxeetan ur-kontsumoa murriztea.
- Nekazaritzan, ura modu eraginkorragoan erabiltzea lortzea.
- Industrian, ura aurrezteko sustatzea.

Ur-baliabideak poluitzeko arriskua murriztea

- Estolderian beharrezko hobekuntzak eta mantentze-lanak egitea.
- Hondakin-uren isuriak kontrolatzea.
- Hiriko hondakin-uren saneamendua bermatzea.

EKINTZA ADIERAZGARRIAK

- Hornidura-sarean galerak identifikatzeko sistema automatikoa ezartzea pixkanaka.
- Ur araztuen ustiapenerako beharrezko ekintzak garatzea.
- Udal-lorategietako ureztatzearen eraginkortasuna hobetzeko programa bat zehaztea eta ezartzea.
- Estolderia-proiektu berrietan eta erreformetan euri-urak bereizteko sarea ezartzea.

IRAUNKORTASUN-HELBURUAK: HONDAKINEN KUDEAKETA**Administrazioan hondakinak minimizatzea eta kudeaketa egokia garatzea**

- Udalean zerbitzuak ematen dituzten administrazioetan sortutako hondakinak indizeak eta kudeaketa kontrolatzea.
- Tokiko administrazioaren zentroetan eta prozesuetan minimizazio-, balorazio- eta birziklatze-irizpideak ezartzea.

Etxeetako hondakinak eta haien parekoak minimizatzea, eta birziklatutakoak eta balorizatutakoak kopurua handitzea

- Herritarren eta udalerriko sektoreen parte-hartzea sustatzea, hondakinak minimizatzeari dagokionez.
- Etxeko hondakinak frakzioak jasotzeko sistemetan hobekuntzak sartzea.

Jarduera-sektoreetan hondakinak kudeaketa optimizatzea

- Sortutako industria-hondakinak gehiago kontrolatzea eta haien minimizazioa sustatzea.
- Zerbitzu-sektoreko hondakinak minimizazioan eta haien jatorrian egiten den bereizketan aurrera egitea.

- Nekazaritzako hondakinak kudeaketa egokia sustatzea.

Poluituta egon daitezkeen lurzoruetan kontrol handiagoa ezartzea

- Poluituta egon daitezkeen lurzoruak identifikatzea eta behar bezala kudeatzea.

EKINTZA ADIERAZGARRIAK

- Udalerriko festetan eta ekitaldi publikoetan sortutako hondakinak minimizatzeko eta kudeatzeko protokoloa zehaztea.
- Etxeetan eta jarduera-sektoreetan hondakinak minimizatzea eta bereiztea bultzatzeko hondakin zerga-sistema aplikatzea.
- Kartografia duen aplikazio informatikoa eta eduki-ontzien pisaketa eta identifikazioa ezartzea, etxeko hondakinak biltzea optimizatzeko.
- Poluituta egon daitezkeen lurzoruen ikerketa sistematizatzea.

IRAUNKORTASUN-HELBURUAK: ENERGIA**Tokiko energia-iturri garbien eta berriztagarrien erabileran aurrera egitea**

- Udal-instalazioetan eta - ekipamenduetan energia garbiak eta berriztagarriak ustiatzeko sistemak ezartzea.
- Udalerriko sektore guztietan energia-iturri garbi eta berriztagarrien erabilera sustatzea.

Tokiko administrazioan energia zentzuz kontsumitzea eta energia-eraginkortasuna hobetzea

- Argiztapen publikoan energia-kontsumoa optimizatzea.
- Udal-makinarian, -instalazioetan eta - ekipamenduetan energia zentzuz kontsumitzea eta energia-eraginkortasuna hobetzea.

Udalerriko sektore guztietan energia aurrezte eta energia-eraginkortasuna sustatzea

- Energia aurrezte eta energia-eraginkortasunaren mekanismoak sustatzeko kanpainak egitea.
- Udalerrian energia-eraginkortasuna sustatzen duten mekanismo arau-emaeak eta pizgarri ekonomikoak garatzea.

EKINTZA ADIERAZGARRIAK

- Energia berriztagarriak ustiatzeko udal-ordenantza lantzea.
- Landa-turismoko jardueretan energia berriztagarriak ustiatzeko finantziario- eta laguntza-iturriak lortzeko bidea dinamizatzea.
- Energia-kudeaketa eta -bateragarritasunerako sistema ezartzea udalerrian.
- Eraikuntza-ordenantzetan energia-eraginkortasunaren eta arkitektura bioklimatikoaren irizpideak gehitzea.

IRAUNKORTASUN-HELBURUAK: **AKUSTIKA****Zarata sortzen duten iturriak kontrolatzea**

- Zarata kontrolatzeko beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide teknikoak jartzea.
- Zarata sortzen duten jarduera ekonomikoak kontrolatzea.
- Auzotasun-arrazoiengatik sortutako eragozpenak murriztea.
- Ibilgailuek sortutako zarata kontrolatzea.

Udalerriko akustika-kalitatearen segimendua egitea

- Udalerriko eremu desberdinetan ingurumeneko akustika-maila eta horren bilakaera aztertzea.
- Arazoa sortzen duen zarata-maila duten puntuak eta bereziki zaindu beharreko puntuak identifikatzea eta haien segimendua egitea.

EKINTZA ADIERAZGARRIAK

- Udalerriko zaraten mapa egitea eta aldizka eguneratzea.
- Udalerriko errealtateari egokitutako eta benetan aplika daitekeen zaraten ordenantza idaztea.
- Galtzadetako zoladurak egoera onean izatea.
- Zaratei buruzko araudia betetzeko klausulak ezartzea, udal-zerbitzuak ustiatzen lagatzeko baldintza-orrietan.

IRAUNKORTASUN-HELBURUAK: **JARDUEREN KUDEAKETA****Jardueren ingurumen-portaera hobetzea sustatzea**

- Udalak bultzatutako ingurumen-estrategietan jarduera-sektoreen parte-hartzea lortzea.
- Jarduera ekonomikoetan, ingurumen-kudeaketarako eta ekoetiketatzeko sistemen ezarpena sustatzea.

Jardueren legezko egokitzapena bermatzea

- Udalerriko jardueren errolda eguneratua izatea.
- Udaleko zerbitzu teknikoaren baliabideen erabilgarritasuna ziurtatzea, jardueren kontrol egokia garatzeko.

EKINTZA ADIERAZGARRIAK

- Sektoreetako agenteekin kontseilu ekonomikoa sortzea, garapen ekonomikoko eta ingurumen garapeneko estrategia komunak zehazteko.
- IHOBEk sustatutako ingurumen-kudeaketarako tresna eta programei buruzko informazio-kanpainak egitea enpresentzat.
- Nekazaritzako produkzio ekologikoari edo produkzio integratuari pizgarriak aplikatzea.
- Jardueren legezko egokitzapenaren kudeaketarako eta segimendurako sistema informatizatua ezartzea.

IRAUNKORTASUN-HELBURUAK: **INGURUMEN-ARRISKUAREN KUDEAKETA****Tokiko administrazioarentzat indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen babes zibileko betebeharrak betetzea**

- Indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen babes zibilerako udal-planekin eta prebentzio-neurriekin hornitzea udalerrira.
- Autobabeserako planak behar dituzten eraikin publikoen eta urbanizazioen babesa bermatzea.

Udalerriko jardueri eragiten dien arriskuen prebentziorako araudia betetzen dela ziurtatzea

- Udalerrian, arriskutsuak izan daitezkeen jarduerak identifikatzea eta haien legezko egokitzapena kontrolatzea arriskuari dagokionez.

EKINTZA ADIERAZGARRIAK

- Udalaren organigraman, babes zibilaren funtzioak bere gain hartuko dituen saila sortzea edo funtzio horiek lehendik dagoen sail batean sartzea.
- Autobabeserako plana behar duten udal-instalazioen inbentarioa egitea eta plana ezartzea
- Substantzia arriskutsuak tartean dauden istripuei buruzko legeriak eragiten dien herriko enpresekin lankidetzara iraunkorra ezartzea.

4.3. Iraunkortasunaren faktore sozialak eta ekonomikoak

IRAUNKORTASUN-HELBURUAK: GARAPEN SOZIALA

Herriko komunitatearen kohesio eta justizia soziala bultzatzea

- Erabilgarri dauden gizarte-laguntzako baliabideei buruz *orientatzea* eta haien *berri ematea* herritarrei.
- Egoera txarrean dauden sektoreei *laguntza* ematea.
- Herritarren *oinarrizko beharren* estaldura bermatzea.
- Gizarte-sustapena eta *-integrazioa* jendearen esku jartzea.

Hezkuntza eta jarduera kulturala sustatzea

- Hezkuntza- eta kultur ekipamendu eta zerbitzuak hezigarriak eta kulturalak herritarrentzat. erabilgarri eta eskuratzeko moduan jartzea.
- Teknologia berriak jende guztiaren esku egon daitezen egitea.
- Herriko *jarduera kulturala* dinamizatzea.
- Garapen iraunkorra, bakea eta kulturen arteko *harremana* helburu dituen hezkuntza bultzatzea.

Herritarren esku jartzea bizitzeko moduko ingurunea eta ohitura osasungarriak

- Hurbileko hirigunearen osasungarritasuna eta udalerriko *elkagaien kalitatea* bermatzea.

- Herritarrek *bizimodu eta ohitura osasungarrietan* hezte eta hori sustatzea.
- *Oinarrizko osasun-ekipamendu eta -zerbitzuak* sanitarioak herritarrek erabili eta eskuratzeko moduan jartzea.

Udalaren jarduera solidarioa sustatzea

- Udalaren sarreraren % 0,7ekin nazioarteko garapenerako *lankidetzak* ekintzak sustatzea.
- Kulturaren eta lankidetzaren *trukeak* eta elkartasun-balioak sustatzea.

EKINTZA ADIERAZGARRIAK

- Gizartetik baztertuak izateko arriskua duten udalerriko sektoreen *plan integral komunitarioa* egitea.
- Borondatezko *gizarte-lanaren* programa martxan jartzea.
- *Lankidetzak* eta elkartasunerako udal-kontseilua eratzea eta dinamizatzea.

IRAUNKORTASUN-HELBURUAK: GARAPEN EKONOMIKOA

Herriko jarduera ekonomikoa indartzea eta dibertsifikatzea

- Herriko enpresa-sektorea *kultura ekintzailean*, *berrikuntza teknologikoan* eta *ingurumen-kalitatean* prestatzea eta sustatzea.
- Herriko enpresen *garapena* bultzatzea.
- *Ekonomia soziala* sustatzea.
- Natur eta kultur ondarean oinarritutako *garapen turistikoa* indartzea.
- Teknologia berrietan eta *jakintzan* oinarritutako jarduera ekonomiko berriak gara daitezen egitea.

Herritar guztiek lana izateko bidea egitea

- Langabeei lanari buruzko *informazioa eta orientazioa* ematea.

- Lanerako *prestatzea* sustatzea, lan-merkatuan errazago sartzeko.
- *Lan-munduan* sartzeko mekanismo lokalak eskaintzea.
- Langileen *etengabeko prestatzea* hobetzea.

EKINTZA ADIERAZGARRIAK

- *Enpresa-mintegia* sortzea.
- Teknologia berriei *lotutako enpresen* industrialde espezializatua garatzea.
- Sentsibilizazio-jardunaldiak eta *ingurumen-kudeaketarako prestatzea* antolatzea enpresetan.

4.4. Udal-kudeaketa eta komunikazioa

IRAUNKORTASUN-HELBURUAK: PARTE-HARTZEA ETA KOMUNIKAZIOA

Iraunkortasunerako hezkuntza eta ingurumen-komunikazioa sustatzea

- Iraunkortasunerako hezkuntza sustatzea ikastetxeetan.
- Ingurumenari buruzko informazioa herriko sektoreen esku jartzea.

Tokiko Agenda 21en diseinuan eta kudeaketan herritarren parte-hartzea sustatzea

- Tokiko Agenda 21en berri ematea herritarrei.
- Herritarrek parte hartzeko mekanismo sendoak bultzatzea Tokiko Agenda 21en esparruan.
- Borondatezko lana eta jarduera asoziatiboa sustatzea iraunkortasunaren arloan.

- Herriko erakundeekin, udal-kudeaketa eta tokiko ekintza-planeko ekintza jakin batzuetarako baterako kudeaketa sustatzea.

EKINTZA ADIERAZGARRIAK

- Herritarrek parte hartzeko organo egonkorra eratzea eta dinamizatzea.
- Udalerriko ikastetxe guztietan Tokiko Agenda 21 egitea.
- Iraunkortasun Adierazleen Sistemaren kalkuluaren berri ematea urtero.
- Udalean, partaidetza-aurrekontuen prozesua egitea.

IRAUNKORTASUN-HELBURUAK: UDAL-ANTOLAKUNTZA ETA KUDEAKETA

Tokiko administrazioaren funtzionamendua ingurumena kontuan hartuz garatzea

- Iraunkortasun-irizpideak kontuan hartzea ondasunak erostean eta kanpoko zerbitzuak kontratatzean.
- Tokiko administrazioaren jarduerak duen ingurumen-inpaktua murriztea.

Udal-antolakuntza optimizatzea

- Udal-zerbitzuen arteko koordinazioa hobetzea.
- Tokiko Agenda 21en prozesua eta iraunkortasun-irizpideak tokiko administrazioan integratzea dinamizatuko duen arlo teknikoa indartzea.

EKINTZA ADIERAZGARRIAK

- Udal-instalazio eta -zerbitzuetan, Ekoscanak egitea eta jardunbide egokiko jarraibideak sartzea.
- Ingurumen-kudeaketarako sistemen ezarpena bultzatzea udal-administrazioan.
- Tokiko Agenda 21en Bulegoa sortzea.
- Sailen arteko iraunkortasun-batzordea osatzea.





5. Tokiko Ekintza-planaren diseinu-prozesua

Ekintza-planaren diseinua egiteko, prozesu-eredu bakat baino gehiago egon daitezke, eta horixe komeni da, zeren eta, gauzatu beharreko prozesua zehaztean, udalerrri bakoitzaren berezitasunak kontuan hartu behar baitira.

Hala ere, badaude Tokiko Ekintza-planaren diseinu-prozesuan neurri handiagoan edo txikiagoan sartu beharreko oinarritzko elementu eta jarraibide batzuk. Atal honetan azaltzen dira sintetikoki elementu horiek.

5.1. Prozesuan sartu beharreko oinarritzko alderdiak

Beste plangintza-tresna batzuek ez bezala, Tokiko Ekintza-planaren diseinuak oinarritzko hiru alderdi azpimarratzen ditu:

- **Definizio teknikoa**
- **Udal-komunikazioa**
- **Herritarren parte-hartzea**

Definizio teknikoa

Proposamenen bideragarritasun teknikoa eta haien karakterizazio egokia bermatuko duen planaren edukia prestatzeko beharrezkoak diren zeregin guztiak hartzen ditu kontuan. Horrek espezifikoki izendatutako hainbat udal-teknikariren parte-hartzea eskatzen du. Halere, ohikoa izaten da kanpoko laguntza teknikoa izatea, bai babesa emateko, bai lanen zati bat bere gain hartzeko. Hala, lan horrek udal-teknikariei eskatzen dien arduraldia murriz daiteke.

Zein dira oinarritzko kondizioak definizio teknikoa behar bezala garatzeko?

- **Behar adina zehaztutako diagnostiko eguneratu eta osotik** abiatzea, udalerrira egokitutako eta behar bezala lehenetsitako helburuak eta ekintzak definitu ahal izateko.
- Dokumentua idazten duen taldea **teknikoki fidagarria** eta **jakintza-alor anitzekoa** izatea, proposamenen egokitzapena eta bideragarritasun teknikoa ziurtatzeko eta berrikuntzaren balio erantsia eta jakintza-alor arteko hurbilketa emateko lehendik dagoen udal-kudeaketari.

Definizio teknikoa soilik gehitu duen diseinua duen Tokiko Ekintza-planak ziur aski gabezia hauek izango ditu:

- **Herriko errealitatera eta udal-kudeaketara behar bezala egokitu gabe** egongo da, lehenetasun txikiko ekintzak edo politikoki edo ekonomikoki bideragarriak ez direnak gehitu dituelako.
- Tokiko Ekintza-planean sartuta dauden hainbat arlotako **udal-teknikarien identifikazio-maila eskasa**. Horrek planaren kudeaketan erreferentetzat hartua izan dadin oztopatuko du.
- Zinegotzigoetako **arduradun politikoen inplikazio eskasa** Tokiko Ekintza-planean. Horrek udal-politikan tresna eraginkor gisa erabilia izan dadin eragotziko du.

Gabezia horiek arintzeko edo desagerrarazteko, beharrezkoa da *udal-komunikazio* gehitzea.

Udal-komunikazioa

Hemen sartzen dira udal-teknikariekin eta ordezkari politikoekin egingo diren sentsibilizazio-ekintzak, prestakuntza eta lan-saioak, batetik, tokiko administrazioko langileak eta politikoak prozesuarekin identifika daitezen eta, bestetik, edukia teknikoki eta politikoki aberats eta baliozko dezaten. Hala, tokiko Ekintza-plana hobeto egokitzen da udalerriko errealitatera eta udalaren kudeaketa-gaitasunera, eta sinesgarritasun eta bideragarritasun tekniko eta politikoa handiagoa ematen zaio. Hasierako fasean, aurkezpen- eta sentsibilizazio-saioak eta lan-bilerak egiten dira prozesuaren Segimendurako Batzordearen barruan.

Zein dira oinarritzko baldintzak prozesu hori behar bezala garatzeko?

- Hasieratik, **prozesuari buruz sentsibilizatzea eta haren berri ematea** teknikariei eta ordezkari politikoei, hasieratik inplikaturik senti daitezen eta prozesuaren lan-esparru zehatza eta teknikari gisa zerk eragiten dien jakin dezaten.
- **Gidartza eta parte-hartze politiko** zabala eta esanguratsua bermatzea udalean, prozesuaren borondatezko eta zeharkako izaerari estaldura eta laguntza emateko, eta hainbat zinegotzigoren mendeko teknikarien beharrezko parte-hartzea lortzeko.
- **Lan-dinamika arinak eta eraginkorrak diseinatzea**, prozesuari gehieneko balio erantsia emateko ahalik eta dedikazio-denbora gutxienarekin. Bilerak gehiegi egiteak edo prozesuaren erabilgarritasunaren ikuspen-ezak errefusa eta inplikazio falta ekar ditzake.

Dena den, definizio tekniko eta udal-komunikazioa soilik gehitu duen diseinua duen tokiko Ekintza-planak ziur aski gabezia hauek izango ditu:

- **Ez da behar bezala egokituta egongo** herriko errealitatera eta **herritarren itxaropen eta lehen-tasunetara**. Horrek herriko politikan hurrengo urteetan izango duen erreferente-funtzioa mugatuko du.
- **Herriko eragile sozialen eta ekonomikoen eta herritarren identifikazio-maila eskasa** Ekintza-planarekiko. Horrek udalaren etorkizuneko ikuspegiaren erreferentetzat hartua izan dadin oztapatuko du eta, aldi berean, ekintza jakin batzuetako parte-hartzea edo gutxieneko adostasun soziala eskatzen duten politika jakin batzuk onartzea eragotziko du.
- **Herritarren artean iraunkortasunerako hezkuntza eta sentsibilizazio falta**. Hori, ordea, ezinbestekoa da ekintza-planetik erator daitezkeen erronka eta ekintzak garatzeko.

Gabezia horiek arintzeko edo desagerrarazteko, beharrezkoa da *herritarren parte-hartzea*.

Herritarren parte-hartzea

Hemen sartuko lirateke herritarrek eta eragile sozialek eta ekonomikoek, Ekintza-planaren diseinuari dagokionez, erabakiak hartzeko unean parte hartzeko, iritzi-kontsultak egiteko, sentsibilizatzeko eta informatzeko egin beharreko ekintza guztiak. Hala, plana hobeto egokitzen da herriko sozietatearen sentsibilizazioen bidez jasotako errealitatera eta etorkizuneko itxaropenetara, sinesgarritasun eta bideragarritasun sozial handiagoa emanez. Horretarako, baliteke informazio-ekintzak, iritzi-kontsultak eta eztabaidarako eta akordiorako guneak konbinatu behar izatea. Horren garrantzia eta hedadura oso bestelakoa izan daiteke prozesuaren arabera. Zalantzarik gabe, aipatutako hiru alderdietatik, hori da ekintza-planaren gehitu beharreko dimentsiorik konplexuena.

Prozesu hori behar bezala garatzeko oinarritzko baldintzak hauek dira:

- Garatu beharreko partaidetza-prozesuaren **helburu argi eta errealistetan** oinarriturik, **adostasun politiko eta sozial zabala** ezartzea hasieratik.
- Ahalik eta **parte-hartze handiena** izateko beharrezko hedapen-mekanismoak kontuan hartzea, **ordezkaritza maximoa** lortzeko garrantzi berezia emanez.
- Eztabaida-dinamikaren bidez, parte-hartzaileek **kalitatezko informazio ulergarria izatea aurrez**, eztabaidetan **oreka eta aniztasuna** zaintzea eta herritarrentzat **erakargarriak** izatea eta **erabilgarritasun nabaria** izatea.
- Hasieran proposatutako itxaropenak eta helburuak kontuan hartuz, parte-hartzeak **politikengan eragin eraginkorra** izango duela ziurtatzea, **prozesuari jarraipena eman diezaiokeen parte hartzeko kultura** sortzeaz arduratuz, eta, hala, Plana ezarri ondorengo segimenduan agertzen diren partaidetza-mekanismo egonkorak finkatu ahal izango dira.

5.2. Tokiko Ekintza-planaren gauzatze-faseak

Ekintza-plana gauzatzean, lehen aipatutako hiru alderdiei lotutako zereginak konbinatzen dira normalean, eta horien garrantzia eta ordena oso izan daiteke udalerraren ezaugarrien arabera eta hiru elementu horietako bakoitzari eman nahi zaion garrantziaren arabera.

Gauzatze-prozesua udalerriri buruz aurrez egin dako diagnostiko batetik abiatzen dela kontuan hartuz, prozesuaren formulazio orokorrak oinarritzko fase batzuk hartu behar ditu kontuan. Fase horiek ondoren azaltzen dira sintetikoki, eta 4. irudia. Tokiko Ekintza-planaren diseinu-prozesuaren fluxugrama. Irudian grafikoki adierazten dira.

1. Ekintzaren oinarritzko helburuak zehaztea
2. Ekintza-planaren proposamenaren hierarkia eta oinarritzko egitura
3. Ekintza-planaren helburuen eta oinarritzko egituraren proposamena udaleko batzorde tekniko-politiko batean eztabaidatzea
4. Ekintza-planari buruzko eztabaida herritarren artean
5. Ekintzen karakterizazioa
6. Berrikuspen eta baliozkotze teknikoak
7. Behin betiko dokumentua egitea
8. Ekintza-plana onartzea

Udalaren diagnostikoan oinarrituta, ekintzaren oinarritzko helburuak zehaztea

Zeregin hau teknikoak izan ohi da eta ekintzaren helburuak ezartzea du xedea, udalak aurrez egindako diagnostiko batean identifikatutako funtsezko elementuetan oinarrituz.

Analisiaren hainbat arlotan definitutako diagnostiko-elementuetatik abiatuz, Tokiko Ekintza-planaren helburu espezifikoak edo orokorragoak identifikatzen dira.

Helburuak zehazteko hainbat metodologia daude, eta erabiliko den metodologia diagnostikoaren egitura-



ren eta xehetasun-mailaren araberakoa izango da. Prozesu honetan, ekintzaren diagnostiko-/helburu-taulak, sektoreen lotura-matrizeak edo helburuen formulazioa erabiliko dira kausa-efektu zuhaitzetan oinarrituz.

Zein dira aplikatu beharreko oinarritzko irizpideak?

- Aurreko fasean diagnostikatutako elementuak ahalik eta xehetasun gehienarekin hartu behar dira kontuan, egindako diagnostikoa ahalik eta gehien baloratzeko eta **arazoaren eta irtenbidearen artean erlazio zuzena** ezartzeko.
- Udalerrian identifikatutako alderdirik espezifikoek kontuan hartzea, aldi berean, agertzen diren **helburuak** ahalik eta **espezifikoek** izan daitezten eta **udalerrriaren testuingurura** ahalik eta **hobekien egoki** daitezken; hala, orokorragiak ez izatea lortzen da.
- Arazoei ahalik eta **erantzun global eta integratuenak** ematen saiatzea, arlo jakin batean detektatutako ahulezia baten aurrean ekintza-helburuak hainbat ikuspegitatik proposatu ahal izateko, eta ez ikuspegi sektorialetik soilik.

Ekintza-planaren proposamenaren hierarkia eta oinarritzko egitura


Lan-fase hau ere teknikoak izan ohi da, eta aurrez zuhaitz gisa identifikatutako helburuen hierarkia eta egitura egitea du helburu, hiru mailatako eskema orokorra eginenez: Lerro estrategikoak, programak eta ekintzak.

Zein dira aplikatu beharreko oinarritzko irizpideak?

- Udalerriko arlorik garrantzitsuenak eta adierazgarrienak adieraztea **lerroen formulazioan**. Lerro horiek behin idatzitakoan, edozein herritarrek egin dezake bat haiekin, ulergarriak izango baitira eta etorkizuneko ikuspegi egokia proposatuko baitute.
- Zuhaitzaren **egitura koherentea** zehaztea. Zuhaitz horretan, ekintza-lerroaren geroz eta abstrakzio-maila handiagoa egongo da, eta lerro bateko programek eta programa horietako ekintzek helburu nagusiari argi eta garbi erantzun diote.

Ekintza-planaren oinarritzko helburu eta egituraren proposamena udaleko batzorde tekniko-politiko batean eztabaidatzea

Ekintza-planaren egituraren proposamena egindakoan eta planaren definizio teknikoan aurrera egin eta foroan edo herritarrek parte hartzeko beste tresna batzuen bidez eztabaidatu aurretik, komeni da proposamena udaleko organo tekniko-politiko batek teknikoki eta



4. irudia. Tokiko Ekintza-planaren diseinu-prozesuaren fluxugrama.

ITURRIA: Guk egina

politikoki eztabaidatzea, zuzentzea eta baliozkotzea. Organo horretan, planarekin zerikusia duten teknikariak eta politikoak egongo dira.

Hori dela eta, nahitaezkoa da organo hori eratzea (hainbat izenekin ezagutzen da: ingurumenaren udal-batzordea, iraunkortasunaren udal-batzordea, segimendurako batzorde tekniko). Normalean, Tokiko Agenda 21en prozesua martxa jartzeko hasierako fasean eratzen da, eta, prozesuaren funtsezko fase horretan, teknikarien ahalik eta parte-hartze handiena bermatu beharko du.

Zein dira aplikatu beharreko oinarrizko irizpideak?

- Bileren helburuak eta dinamika eta Tokiko Ekintza-planaren ezaugarriak argi eta garbi azaltzea, bere potentzialtasunak gutxietsi gabe eta aurre-

rago prozesuaren aurka itzuliko diren itzaropen gehiegi sortu gabe.

- Tokiko Ekintza-plana gauzatzeko prozesuan inplikaturik dauden teknikari eta politiko ordezkari guztien parte-hartzea bermatzea, hala, etorkizunean kudeaketa- eta plangintza-tresna gisa erabili beharko duten guztiek plana baliozko egin dezaten. Horrek ez du esan nahi denek egon behar dutenik bilera guztietan, baina bai gai jakin bat lantzean inplikazio-mailarik handiena duten guztiak egotea.
- Bilerak ahalik eta eraginkortasun handienarekin egitea, informazioa aurrez emanez eta arreta Ekintza-planaren alderdi nagusietan jarritz.

Tokiko Ekintza-planari buruzko herritarren eztabaida

Ekintza-planaren diseinuko zereginik adierazgarrienetakoa da, eta bere formatuak eta metodologiak zabalagoak izan daitezke, betiere, udalerriko parte-hartzea baldintzatzen duten ezaugarrien arabera eta diseinu-prozesuaren barruan eman nahi zaion garrantziaren arabera.

Argitalpen honekin batera, gida bat editaturik dago, eta Tokiko Agenda 21eko parte-hartzearen alderdiak lan-tzen ditu espezifikoki (Tokiko Agenda 21: *Parte hartzeko prozesuak martxan jartzeko gida*).

Gehien erabiltzen den mekanismoa Herritarren foroa da. Organo horrek bai eragile sozialei eta ekonomikoei eta bai herritarrei egiten die deia. Tokiko Agenda 21eko prozesuaren fase horretan duen funtzioa Ekintza-plana sozialki baliozkotzea da, hura osatuz, zuzenduz edo, kasu batzuetan, teknikoki azaldutako proposamenak alde batera utziz, eta proposamenei lehentasuna emanez.

Zein dira aplikatu beharreko oinarrizko irizpideak?

- Parte-hartzeari eman nahi zaion esparru orokorraren hasierako definizioan, **ahalik eta adostasun politiko, tekniko eta sozial handiena** ezartzea.
- Tokiko komunitatearen parte-hartze **zabal eta adierazgarriena** mobilizatzen saiatzea.
- **Eztabaiden dinamikaren kalitatea** zaintzea, aurretiko informazio egokia emanez, eta eztabaida orekatua, askotarikoa, erakargarria eta funtzionala lortzen saiatuz.
- Parte-hartzeak **udal-politiketan** modu eraginkorrean **eragiten** duela ziurtatzea.

Ekintzen karakterizazioa

Tokiko Ekintza-planaren oinarrizko eskema aurreko faseetan teknikoki, politikoki eta sozialki baliozkotutakoan, azken bertsioan zehaztutako ekintza bakoitzaren definizio tekniko zehatza egiten da.

Ekintzen karakterizazio zehatz hori egitea talde teknikoari dagokio normalean, talde hori udal-teknikarien taldea edo kanpoko laguntza dela ere, eta gida hone-tako 3.3. atalean aipatutako irizpideak kontuan hartuz garatzen da.

Berrikuspen eta baliozkotze tekniko


Tokiko Ekintza-planaren definizio tekniko osoa eta ekintza guztien deskribapen zehatza egindakoan, beste berrikuspen eta baliozkotze tekniko bat egin behar dute ordezkari politikoek eta udal-teknikariek.

Ekintza-planaren eskemaren berrikuspenean ez bezala (estrategikoagoa eta globalagoa da, eta lan-bilera bateratu gisa egin behar zen lan ezinbestean), berrikuspen hauen helburua proposamena modu zehatzagoan baliozkotzea da. Horrek aukera ematen du udalerri bakoitzaren arabera egongo den beste lan-formatu batzuk erabiltzeko.

Behin betiko dokumentua egitea eta Tokiko Ekintza-plana onartzea

Udalaren eta herritarren ekarpen guztiak behar bezala integratutakoan, Tokiko Ekintza-planaren behin betiko dokumentua egin behar da, eta, gero, udalbatzan onartu beharko da.

Une horretan, egin beharreko komunikazio-jarduerak egitea ezinbestekoa izango da prozesuan parte hartu duten pertsona guztiek (teknikariak, politikoak, erakundeetako ordezkariak edo eragile ekonomikoak edo herritarrak) informazioa jaso eta planaren azken edukia ezagut dezaten.



6. Tokiko Ekintza-plana ezartzeko eta kudeatzeko estrategiak eta tresnak

6.1. Tokiko Ekintza-planak modu eraginkorrean ezartzeko oztopoak eta zailtasunak

Azken urteotan Tokiko Agenda 21eko prozesuei ekin dieten udalerrietako esperientzia aztertuz identifikatu dira neurri handiagoan edo txikiagoan, udalerriaren arabera, eragiten duten oztopo-multzo komunak eta planak modu eraginkorrean ezartzea oztopatzen dutenak.

Oztoporik ohikoenak hauek dira:

- Prozesua **koordinatzeko** eta bultzatzeko espezifikoki esleitutako **giza baliabiderik ez izatea**.
- **Udal-egitura** sail askotan antolatuta egotea eta hori desegokia izatea zeharkako planak integratzeko.
- Udal-teknikarien prestakuntza- eta inplikazio-eza.
- **Gidaritza** eta adostasun **politiko** eskasa, planaren asmoa eta hedadura eta soilik borondatezkoa dela kontuan hartzen baditugu.
- Ekintza-planaren funtzionalitate eskasa **kudeaketa-tresna** eraginkor gisa.
- Epe laburrean **prozesuak ikuspen** eskasa izateko arriskua.
- **Aurrekontu** urria planaren ezarpena finantzatzeko.
- Udal-kudeaketaren gaitasuna gaitzen duten eta **udalez gaindiko erakunde**en esku-hartzea eskatzen duten ekintzak.
- Prozesuaren dinamizazioa bultzatzen duen eta ezarpenaren segimendua egiten duen **partaidetza-prozesuari** eusteko zailtasunak.



6.2. Tokiko Ekintza-plana ezartzeko eta kudeatzeko estrategiak

Lehen identifikatu diren oztopoei dagokionez, Ekintza-plana eraginkortasunez ezartzeko, kontuan hartu beharreko erreferentzia-estrategia batzuk daude. Estrategia horiek sistematikoki deskribatzen dira taula honetan:

TOKIKO EKINTZA-PLANA ERAGINKORTASUNEZ EZARTZEKO ESTRATEGIAK

- Tokiko Agenda 21en prozesuaren *koordinazioa eta dinamizazio teknika* bermatzea.
- *Organigrama teknika* egokitzea eta *koordinazio-mekanismoak* sortzea.
- *Udal-teknikariak* iraunkortasunarekiko *sentsibilizazioa eta prestatzea*.
- Iraunkortasun-gidaritza *politika* sendotzea.
- Ekintza-planaren erabilera proaktiboa eta zeharkako erabilera *kudeaketa-tresna* gisa sendotzea.
- Tokiko administrazioak *ingurumena kontuan har dezala* bultzatzea.
- Udalen arteko eta udalaz gaindiko *lankidetzak* sustatzea eta udal-sareetan parte hartzea.
- *Herritarren parte-hartzea* sustatzea Tokiko Agenda 21en segimenduan eta ezarpenean.

Tokiko Agenda 21en prozesuaren koordinazioa eta dinamizazio teknika bermatzea

Zergatik?

Prozesuaren erreferentzia-dinamizazioa eta gidaritza bideratzen duten baliabide teknikorik ez badago, zailagoa izaten da Ekintza-plana ezartzea, teknikariek espezifikoki bere gain hartu ez dituzten zeharkako zeregin berriak behar baitira.

Zein estrategia aplika dezakegu?

Tokiko Agenda 21en prozesua **koordinatu eta dinamizatzen duen unitate teknika** izatea.

Unitate horren funtzioak ez du izan behar derrigor ekintza-planeko ekintza guztiak gauzatzea eta ezartzea, baizik prozesuan ezinbestean parte hartu behar duten eragile guztien lotura sustatzea.

1. taula. Tokiko Agenda 21en koordinazio-unitate teknikoaren jardura eta funtzio orokorrak. taulan, Tokiko Agenda 21en koordinazio-unitate teknikoak garatu beharko lituzkeen oinarriko funtzioak proposatzen dira. Giza baliabideen hornikuntza era batekoa edo bestekoa izango da udalerriaren eskalaren arabera (teknikari baten arduraldi partzialetik hasi eta teknikari bat baino gehiagoren arduraldi osoraino), baita bere egitura eta izaera ere (udaleko zinegotzigoari edo sail bati lotutako unitatea, udalaren zerbitzu teknikoaz kanpoko bulegoa, udalaz gaindiko izaera duen tokiko administrazioari lotutako unitatea...).

Organigrama teknika egokitzea eta koordinazio-mekanismoak sortzea

Zergatik?

Tokiko Ekintza-planaren izaera erabat zeharkakoa da, eta hainbat eskumen-eremuri egin behar die aurre, besteak beste, ingurumen-bektoreak, lurralde-alder-

1. taula. Tokiko Agenda 21en koordinazio-unitate teknikoaren jardura eta funtzio orokorrak.

- | | |
|--|--|
| <ul style="list-style-type: none"> • Udalerriko Tokiko Agenda 21 koordinatzea. • Parte hartzen duen ekintza-planeko ekintzak ezartzea. • Tokiko Agenda 21en barruan, udal-arloko ekintzak dinamizatzea eta haien koordinazioa sustatzea <i>Iraunkortasunerako Udal Batzordearen/Segimendurako Batzorde Teknikoaren</i> bidez. • Ekintza-planaren ezarpenaren <i>aldizkako segimendua</i> eta hura eguneratzeko lanak koordinatzea eta egitea. • Iraunkortasun <i>Adierazleen</i> Sistemaren kalkulua egitea eta hedatzea. • Iraunkortasun-irizpideak udal-kudeaketan pixkanaka integratzeko laguntza teknika sustatzea eta ematea • Udal-teknikariei eta ordezkari politikoei zuzendutako <i>sentsibilizazio-ekintzak</i> eta <i>prestatuntza</i> antolatzea. | <ul style="list-style-type: none"> • Tokiko Agenda 21 garatzeko, sektore publikoan eta pribatuan <i>finantziario-iturriak</i> bilatzea. • Ekintza-planaren helburu estrategikoak udalaren <i>enpresa emakidadunei</i> eta udalaz gaindiko erakundeei transmititzea. • <i>Udalaz gaindiko lankidetzak</i>-organoetan eta UDALSAREA 21en udaleko ordezkari gisa parte hartzea Ekintza-plana ezartzeko. • <i>Herritarrek parte-hartzeko</i> organoen funtzionamendua dinamizatzea. • <i>Herritarren eta herriko eragile sozialen eta ekonomikoen parte hartzea</i> bultzatzeko ekintza-multzoa garatzea. • Udaleko eta Tokiko Agenda 21en prozesuaren ingurumen-dokumentazio osoa biltzen duen dokumentazio- eta <i>informazio-zentroa</i> eguneratuta edukitzea. |
|--|--|

diak, udal-komunikazioa eta –kudeaketa edo alderdi sozialak edo ekonomikoak. Horretarako, beharrezkoa da **udaleko hainbat arlok eta enpresa emakidadunek parte hartzea** iraunkortasun-irizpideak integratzean edo ekintzak gauzatzean, horrek dakarren koordinazio- eta komunikazio-beharrekin. **Udala**, berriz, **sail askotan antolatuta** dago, eta horrek zailago egiten du zeharkako planak kudeatzea eta ezartzea.

Zein estrategia aplika dezakegu?

- Ekintza-plana sustatzeko eta bere segimendua egiteko **koordinazio-organo tekniko**a eratzea eta dinamizatzea.
- Arloetako jardueretan, **iraunkortasun-irizpideak integratzeko mekanismoak** ezartzea.

Segimendurako organoak Tokiko Agenda 21en koordinazioa ahalbidetu eta bultzatu behar du; horretarako, udaleko arloen eta enpresa emakidadun posibleen edo udalaz gaindiko erakundeen parte-hartzea bermatu behar du.

Organo horren konfigurazioa aldatu egin daiteke udalerraren arabera, baina komeni da Ekintza-plana gauzatzearekin zuzenean lotura duten ordezkari tekniko eta politiko guztiak han integratzea. Salbuespen gisa, beste arlo batzuetara zabal daiteke (planaren ezarpenen zuzenean loturarik ez duten udal-arloak, enpresa emakidadunak, udalaz gaindiko administrazioak...).

Segimendurako organo tekniko horren funtzio nagusiak hauek dira:

- **Urtero** egin beharreko planaren **ekintzak** berrikus-tea. Ekintzak eguneratuko dituzte –beharrezkoa izanez gero– eta hurrengo urteari dagozkion **aurrekontuak** zerbitzuen arabera esleituko dituzte.
- Ekintza-planaren garapena urtero **ebaluatzea**.
- Udal-kudeaketako iraunkortasun-irizpideen integrazioaren segimendua egitea.

Udal-teknikariak iraunkortasunarekiko sensibilizatzea eta prestatzea

Zergatik?

Tokiko Agenda 21en prozesuak iraunkortasunaren integrazioa udal-kudeaketan integratzea dakar; hala, udal-teknikarien eta -langileen parte hartzea bultzatzen du neurri handiagoan edo txikiagoan. Horretarako, aipatutako pertsona horiek sensibilizatu eta espezifiko prestatu behar dira, iraunkortasun-irizpideak eraginkortasunez aplikatu ahal izateko kudeaketan.

Zein estrategia aplika dezakegu?

- Barnekoak sensibilizatzeko eta hezteko **jarduerak** antolatzea.

- Prestakuntza espezifikorako **ikastaroak eta tailerrak** sustatzea.
- Hasieratik, teknikariak Tokiko Agenda 21en prozesuan sartzea eta haiek ere parte hartzea lortzea.

Iraunkortasun-gidaritza politikoa sendotzea

Zergatik?

Tokiko Agenda 21en prozesuek ezaugarri hauek dituzten kudeaketa-tresnak dira: borondatezko izaera dute, hainbat udal-arlok parte hartzen dute eta ziklo politikoak gainditzen dituzten gauzatze-egutegiak dituzte. Hori dela eta, prozesua bere osotasunean ezartzeko eta gero jarraitu ahal izateko, adostasun eta borondate politiko sendoa behar da.

Zein estrategia aplika dezakegu?

- Arduradun politikoei Tokiko Agenda 21en prozesuaren **berri ematea** eta haiek prozesuarekiko **sentsibilizatzea**.
- Prozesuaren hasieran **adostasun** politiko handiena lortzea.
- **Batzorde politiko** bat sortzea Ekintza-plana eta Tokiko Agenda 21 indartzeko eta sustatzeko.
- Tokiko Agenda 21 sustatzen duten udalerriei udalaz gaindiko administrazioek eman diezazkieketen **pizgarri ekonomikoak, arau-emaileak eta onarpen publikoko jarduerak** ebaluatzea eta haien berri ematea.
- Tokiko Agenda 21 ezartzean izandako **esperientzia** arrakastatsuen berri ematea ordezkari politikoei.


Tokiko Ekintza-planaren erabilera proaktiboa eta zeharkako erabilera kudeaketa-tresna gisa sendotzea

Zergatik?

Tokiko Ekintza-planaren barruan inplikaturako hainbat egilerekin exekutatu behar den urte anitzeko ekintzen programazioa dago. Horretarako, ordea, sarritan ez da egoten lotura-mekanismo zehatzurik udal-aurrekontuaren gisako tresnekin, eta, hala, modu zuzenagoan baldintzatzen da kudeaketa. Hori dela eta, Ekintza-plana azkenean erreferente orokorra soilik izan daiteke, eta ez kudeaketa-tresna. Horrek eragina du ekintzen gauzatzeari eta helburuak lortzeari dagokionez.

Zein estrategia aplika dezakegu?

- Udal-arlo bakoitzarekin eta udal-aurrekontuarekin lotutako ekintza-planeko **ekintzen urteroko programazioa** egitea eta sistematizatzea.



5. irudia. Tokiko Agenda 21en prozesuan parte hartzen duten udaleragile moten egitura.

ITURRIA: Guk egina

- Inplikaturako arlo guztien partaidetza duen **Ekintza-plana** aldizka ebaluatze eta eguneratzeko mekanismoa ezartzea.
- **Aplikazio informatikoak** sartzea planaren kudeaketa optimizatzeko.
- **Iraunkortasun-adierazleen** sistema aldizka kalkulatzeko eta lortutako helburuen lorpen-maila ebaluatzea.

Tokiko administrazioak ingurumena aldagai gisa har dezala bultzatzea

Zergatik?

Tokiko administrazioa Tokiko Agenda 21en eta iraunkortasun-estrategiaren eragile gisa aritzen da, eta, horregatik, tokiko komunitatearentzako **rol eredugarria** dauka. Udalak, bere funtzionamenduan iraunkortasun-irizpideak integratuz, batetik, bere **sinesgarritasuna** sendotzen du eta, bestetik, herritarrek udalaren barneko funtzionamendu horren **prozesua ikusi ahal izan dezaten laguntzen** du.

Zein estrategia aplika dezakegu?

- Iraunkortasun-irizpideak gehitzea kanpoko zerbitzuen **erosketa-** eta **kontratazio-politikan**.
- **Eraikinak** ingurumena kontuan hartuz kudeatzea.
- **Udal-zergan** iraunkortasun-irizpideak gehitzea.
- **Ingurumen-kudeaketarako sistemen** ezarpena sustatzea.

Udalen arteko eta udalaz gaindiko lankidetzaren sustatzea eta udal-sareetan parte hartzea

Zergatik?

Tokiko Agenda 21en prozesua proposatzen duten erronka askori irtenbide bateratua eman behar zaie, ingurunean hurbilen dauden udalerriekin elkarlanean arituz, eta, hala, **emaitza hobea lortzen da**. Beste hainbat kasutan, berriz, erronkak eta haien irtenbideak berdinak dira Euskal Autonomia Erkidegoko udalerririk guztietan; beraz, **esperientziak eta baliabideak partekatzen** badira, esku hartzeko gaitasuna eta kalitatea hobetzen dira.

Zein estrategia aplika dezakegu?

- Tokiko Agenda 21 mankomunitateetan edo udalaz gaingiko beste tokiko administrazio batzuetan ezartzeko **lankidetza-mekanismoak** finkatzea.
- **UDALSAREA** 21en parte hartzea erabilgarri dau den baliabideak eta zerbitzuak baloratuz.

Herritarren parte-hartzea sustatzea Tokiko Agenda 21en segimenduan eta ezarpenean

Zergatik?

Parte-hartzea erabili duen ezartze-prozesu batek kanpoko segimendua egiteko aukera ematen dio udalari; hartara, **Ekintza-plana eraginkortasunez betetzen** dela zain dezake. Bestetik, planaren kalitatea hobetzen du, eta **zilegitasun handiagoa** ematen dio planaren aldizkako eguneratzeari eta iraunkortasun-irizpideak etengabe ezartzeari. Halaber, gizarteak plana **gauza dezan** eragin dezake.

Zein estrategia aplika dezakegu?

- Tokiko Agenda 21en/Herritarren foroaren segimendua egiteko eta sustatzeko **organo egonkorra** dinamizatzea.
- Ekintza jakin batzuetarako borondatezko lana eta **kudeaketa asoziatiboa** sustatzea.
- Ekintza-planaren ezarpenari eta bere iraunkortasun-adierazleen bilakaeraren berri ematea aldi-zka.
- Tokiko Agenda 21i buruzko **Komunikazio eta Parte Hartzeko Plana** diseinatzea eta garatzea herritarrentzat.

5. irudia. Tokiko Agenda 21en prozesuan parte hartzen duten udal-eragile moten egitura. irudian, udal-antolakuntzaren egitura-proposamenaren eskema orokorra erakusten da. Irudi horretan, lehen aipatutako elementu guztiak azaltzen dira, eta eman litezkeen erlazio nagusiak eta bigarren mailakoak jasotzen dira.





7. Ekintza-planaren segimendua eta eguneratzea

7.1. Ekintza-planaren programazioa, segimendua eta eguneratzea

Ekintza-plana kudeaketa-tresna eraginkor gisa erabili ahal izateko, urte anitzeko plangintza estrategikoaren funtzioa izateaz gain, beharrezkoa da oinarrizko hiru elementu gehitzea:

- Ekintza-planaren ezarpenaren aldizkako **ebaluazioa**.
- Ekintzen urteroko **programazioa**.
- Ekintza-plana aldizka **eguneratzea**.

Ekintza-planaren ezarpenaren aldizkako ebaluazioa

Zein dira lortu beharreko helburuak?

- Ekintza-planaren **ezarpen-maila** ebaluatzea globalki, aldizka eta urte batetik bestera eta udalerrien artean konparatzeko moduan.
- Ebaluazioaren bidez, Ekintza-planaren ezarpenaren **ahulezia eta indar** nagusiak **identifikatzea** ekintzen tipologia, gaia, egileak edo beste aldagai batzuk kontuan hartuz, planaren **gauzatzea optimizatu** ahal izateko.
- **Ekintza-planaren edukia** urteroko edo urte anitzeko maiztasunarekin **eguneratzea edo aldatzea**, egindako ebaluazioan eta irizpide teknikoetan oinarrituz.
- Planaren gauzatze-mailari buruzko **informazioa** izatea eta informazio hori **herriarrei eta eragile sozial eta ekonomikoei** eta planaren diseinuan parte hartu duten eta/edo bere segimenduan parte hartzen duten guztiei ematea.

Hala, planari lotutako teknikari guztien parte-hartzearekin egindako ezarpenaren segimendua aldizka egiten bada, **teknikarien konpromiso handiagoa** eta Ekintza-planarekiko **arreta handiagoa** lortuko da egin beharreko **ekintzak programatzean**.

Zein irizpide aplikatu behar da?

- Ebaluazioaren **objektibitate** maximoa bermatzea.
- Urtekako ebaluazioak **alderatzea**.
- **Udalerrien arteko alderagarritasun** maximoa ahalbidetzea.
- Giza baliabideei dagokienez, gauzatze-**kostuaren** zifra **arrazoizkoa** izatea.
- Prozesuaren **sistematizazio** maximoa lortzea.
- **Metodologia** udalerrietako tipologietara **egokitzea**, tamainen arabera.

Nola gara daiteke?

Oinarrizko zeregin hauen bidez:

1. Plana gauzatzeko lanean parte hartzen duten **udal-zerbitzuak** identifikatzea, haiek **informatzea** eta **sentsibilizatzea**.

2. Ekintza-planarekin zerikusia duten ekintzei buruz zerbitzuek duten **informazioa biltzea**, galdera-sortak eginez, banatuz eta bilduz.
3. Lortutako **emaitzak aztertzea eta baliozkotzea** galdera-sortak berrikusiz eta zerbitzuekin bilerak eginez.
4. Emaitzetan, planeko ekintzen **gauzatze-maila ebaluatzea** hainbat irizpideren arabera.
5. **Emaitzen txostena** egitea eta udal-agenteei **aurkeztea**.

Elementu metodologiko garrantzitsuenak ere kontuan hartu behar dira:

- Ekintza bakoitzaren **ebaluazio erdikuantitatiboa** egiten da, eta bakoitzari **garapen-egoeraren** maila bat esleitzen zaio (egiteke, hasita, aurreratua, amaitzen, amaituta), aurrez zehaztutako irizpide objektibo batzuetan oinarrituz.
- Bost kategorია horietako bakoitzari **zenbakizko balio bat** ematen zaio (0, 25, 50, 75 eta 100). Balio horrek **ekintza bakoitzaren gauzatze-ehunekoa** adierazten du, eta, globalki, ekintza-plan osoaren garapen-egoera kuantifikatzeko aukera ematen du. Aldagai interesgarri batzuen arabera ere egin daiteke hori (arloak, esparruak, lehentasunak...).
- Ekintza-plan osoa, galdera-sorten bidez lortutako emaitzak eta planaren gauzatzeari buruzko ebaluazioa **aplikazio informatiko** batean integratzen dira. Aplikazio hori (MUGI 21) **Ekintza-plana kudeatzeko** espezifikoki diseinaturik dago, eta UDAL-SAREA 21eko kide diren udalerrri guztiek dute erabilgarri.

Ekintzen urteroko programazioa

Zein dira lortu beharreko helburuak?

- Ekintza-planaren **urte anitzeko plangintzaren** eta inplikaturako udal-zerbitzuek egiten duten **kudeaketaren** arteko **lotura** posible egitea.
- Ekintza-plana **udal-aurrekontuak** egitean **kontuan hartzea**.
- Urteroko maiztasuna duten denbora-mugarriak izatea, **Tokiko Agenda 21**en prozesuan udal-teknikariak eta eragile sozial eta ekonomikoak **ikusi ahal** izan dezaten.
- Planaren **gauzatzea** baliabide ekonomikoetara eta giza **baliabideetara** eta jarduera-beharren bilakaerara hobeto **egokitzea**.

Zein irizpide aplikatu behar da?

- Ekintza-plana eta horren ezarpenari buruzko **ebaluazioa** programazioaren oinarri gisa **erabiltzea**.
- Iraunkortasunaren udal-batzordearen esparruan, urteroko programazioa udal-teknikari guztiek **parte hartzen** dutela egitea.



- Prozesua ahalbidetzen eta hura eraginkorra izan dadin egiten duten **tresna informatikoak eta prozedurak** erabiltzea.
- Urteroko programazioa udal-aurrekontuak egitean kontuan hartzea.

Ekintza-plana aldzika eguneratzea


Zein dira lortu beharreko helburuak?

- Planaren helburuak eta ekintzak iraunkortasunarekin lotutako alderdien **legezko bilakaerara, bilakaera teknikorak, ekonomikora eta sozialera** egokitzea.
- Plana iraunkortasunaren **tokiko kudeaketaren** bilakaerara egokitzea.
- Plana arloen arabera egokitzea, ekintzen **ezarpen-maila** kontuan hartuz.
- Plana udalerrriaren **egoera sozial eta ekonomikoaren eta ingurumen-egoeraren** bilakaerara egokitzea.
- Hasiera batean, ekintza-planean kontuan hartu ez ziren **jarduera-arlo berriak** gehitzea.

Zein irizpide aplikatu behar da?

- Eguneratzea Ekintza-planaren **gauzatze-epe globala amaitu aurretik** hastea, baina ez planaren zati garrantzitsu bat gauzatu aurretik eta/edo ezarzte-epe globalaren denbora erdia igarotakoan.
- Udalerrriaren **egoera eta joera** sozialen, ekonomikoen eta ingurumenekoen **ebaluazio eguneratua** egitea diagnostikoan eta/edo iraunkortasun-adierazleen sistemaren kalkuluan oinarrituz.
- Ekintza-planaren ezarzte-maila eguneratzearen oinarri gisa **ebaluatzea**.
- Planaren diseinu-prozesuan integratutako oinarri-zko alderdiak kontuan hartzea: **definizio teknikoa, udal-komunikazio eta herritarren parte-hartzea**.

6. irudia. Tokiko Ekintza-planaren segimenduaren eta aldzikako programazioaren zikloa. Irudian, Ekintza-planaren kudeaketa-agertoki proaktiboa erakusten da



6. irudia. Tokiko Ekintza-planaren segimenduaren eta aldizkako programazioaren zikloa.

ITURRIA: Guk egina

eskimatikoki, planaren urte anitzeko plangintza, haren ebaluazioa eta aldizkako programazioa kontuan hartuz, baita bere balizko eguneratzea ere.

zesuetako funtsezko alderdien **bilakaeraren** segimendua egitea. Bai eta herritarrei ildo horretatik ematen diren aldaketen **berri ematea** eta Ekintza-planaren ezarpena sustatzea ere.

Adierazle gisa hautatutako parametroek ezaugarri hauek eduki behar dituzte:

- **Neurgarriak** eta epe luzera berriro erabil daitezkeen metodoen bidez lortuak.
- **Arrazoizko kostu ekonomikoa** erraz lortzeko modukoak, edo ahal izanez gero, prozesu normalizatu baten bidez lor daitezkeenak.

7.2. Tokiko iraunkortasunaren segimendua: Tokiko iraunkortasun-adierazleak

Adierazleen sistema parametro-multzo bat da eta parametro horiek, normalean, urtero lortzen dira. Haien funtzio nagusia da **udalerriko** ingurumena hobetzeko eta garapen iraunkorraren ereduetara zuzendutako pro-

2. taula. Tokiko iraunkortasun-adierazle komunak Euskal Erkidego Autonomian.

INGURUMENA: LURRALDEA ETA PLANGINTZA

- **1. adierazlea:** Gune publiko irekiak eta zerbitzugune publikoak egotea udalerrian.
- **2. adierazlea:** Lurraren erabilera iraunkorra.

INGURUMENA: MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA

- **3. adierazlea:** Tokiko mugikortasuna eta bidaiarien garraioa.
- **4. adierazlea:** Garraio-azpiegituretako erabiltzen den udal-azalera banatzea.

INGURUMENA: BALIABIDE NATURALAK

- **5. adierazlea:** Ur-kontsumoa.
- **6. adierazlea:** Energia-kontsumoa.

INGURUMENA: HONDAKINAK

- **7. adierazlea:** Hondakinak sortzea eta haiek kudeatzea.
- **8. adierazlea:** Uretara egindako isuriak.

INGURUMENA: UDALERRIKO JARDUERETAN INGURUMENA INTEGRATZEA

- **9. adierazlea:** Ingurumen-kudeaketarako sistemak udalerrian.

INGURUNE SOZIALA ETA EKONOMIKOA

- **10. adierazlea:** Pobrezia eta gizarte-baztertzeta.
- **11. adierazlea:** Langabezia-tasa.
- **12. adierazlea:** Herritarrak tokiko komunitatearekin gustura egotea.

- Diseinatzean kontuan hartu diren alderdien al-daketekiko **sentikorrak**, gertatzen diren aldaketak adierazteko gai izan daitezten.
- **Ulergarriak**, proposatutako helburuen lortze-mai-laren berri herritarrei emateko erabili ahal izan daitezten.
- **Interpretatzen** errazak, hau da, zalantzarik gabe interpreta daitekeen informazioa ematen dutenak.
- Tokiko administrazioak edo eragile sozialek **aldatzeko gaitasuna** duten arloei erreferentzia egiten dietenak.
- Orokorrean, adierazleen sistemak udalerriaren egoeraren **ikuspegi orokorra** eta azkarra emateko gai izan behar du.

Euskal Autonomia Erkidegoaren testuinguruan, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak orain dela gutxi tokiko iraunkortasun-adierazleen sistema garatu du, eta ingurumeneko esparru-programaren serieko 20. alean argitaratu da: *"Euskal Autonomia Erkidegoan tokiko iraunkortasun-adierazleak kalkulatzeko gida metodologikoa"*.

Kontuan hartu diren adierazle komunak ondoko taulan erakusten dira, eta haiek kalkulatzeko metodologia aipatutako argitalpenean zehazten da. Osagarri gisa, gidan hainbat arlotako adierazle komun osatzen dituzten 20 adierazle espezifiko proposatzen dira.





8. Bibliografia eta Erreferentziak

8.1. Bibliografia

- Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Saila. Eusko Jaurlaritza. *Tokiko Agenda 21 Euskadiko udalerrietan ezartzeko eta garatzeko gida praktikoa*. 2000.
- Bartzelonako Diputazioa. *Los procesos de la Agenda 21 Local en los municipios de Barcelona*. Colección Manuales, 10. zk. (2000-2003).
- ICLEI (International Council for Local Environmental Initiatives). *Tokiko Agenda 21en plangintzarako Europako gida*. 1997.

8.2. Interneteko guneak

United Nations. Division for Sustainable Development
<http://www.un.org/esa/sustdev/>

International Council for Local Environmental Initiatives (ICLEI)
<http://www.iclei.org>

Europako hirien eta herrien iraunkortasunerako kanpaina
<http://www.sustainable-cities.org>

Europako Ingurumen Agentzia
<http://www.eea.eu.int>

Euskadiko garapen iraunkorra
<http://www.ingurumena.net/>

Euskadiko tokiko garapen iraunkorra
<http://www.ingurumena.net/udala>

Biblioteca - Ciudades para un futuro más sostenible
<http://habitat.aq.upm.es>

Xarxa de ciutats i pobles cap a la Sostenibilidad
<http://www.diba.es/xarxasost>




9. Eranskinak

LERRO ESTRATEGIKOEN ADIBIDEAK

1. UDALERRIAREN ITSASERTZA HOBETZEA ETA SOZIALKI ETA EKONOMIKOKI BALORIZATZEA
2. IBILGAILUEN ZIRKULAZIOA ANTOLATZEA ETA IBILGAILU PRIBATUEN PRESENTZIA GUTXITZEA HIRUGUNE HISTORIKOAN
3. JARDUERA EKONOMIKOAN ETA UDALEAN INGURUMEN-IRIZPIDEAK EZARTZEA
- 4. HONDAKINAK MINIMIZATZEA, BERRERABILTZEA ETA BIRZIKLATZEA ETA HAIK INGURUNEAN DUTEN INPAKTUA MINIMIZATZEA SUSTATZEA**

EKINTZA-PLANAREN EGITURAREN ADIBIDEA

(Lerroa - Programa - Ekintza)



EKINTZEN FITXA DESKRIBATZAILEAREN ADIBIDEA

Ekintza 4.1.2

Hondakinak murriztea bultzatzen duten sentsibilizazio-kanpainak egitea

Lerroa:	4 HONDAKINAK MINIMIZATZEA, BERRERABILTZEA ETA BIRZIKLATZEA ETA HAIK INGURUNEAN DUTEN INPAKTUA MINIMIZATZEA SUSTATZEA		
Programa:	4.1 Hiri-hondakinak murrizteko eta birziklatzeko herritarren sentsibilizazioa eta parte-hartzea handitzea.		
Deskribapena:	Herritarrei zuzendutako sentsibilizazio-kanpainak egitea, hiri-hondakin kantitate handiak sortzen dituzten kontsumo-ohiturei buruzko hausnarketa bultzatzeko, adibidez, tamaina txikiko produktuen ontziak, beharrezkoak ez diren ontzi eta bilgarriak, behar den baino produktu-kopuru handiagoa, etab. Ekintzak eragin handiagoa izan dezan, garrantzi berezia emango zaio saltokiek kanpainaren garapenean duten parte-hartzeari.		
Lehenetasuna:	Ertaina	Gauzatze-epea/Ezartze-epea: Laburra (0-1 urte)	
Periodikotasuna:	Urtero	Urteak: 3	
Zenbatetsitako kostua (eurotan)			
Hasierako kostua:	3.000	Urteko kostua:	1.000
			Kostua guztira: 6.000
Adierazleak:	13. ADIERAZLEA: HIRI-HONDAKIN BIRZIKLATUAK 12. ADIERAZLEA: ETXEKO HONDAKINEN PRODUKZIOA		
Gauzatze-kontrola:	Hasteko	Udalak zuzenean gauzatzekoa: E	
Gauzatzeko ardura:	Udala (Ingurumena), Udala (Sustapen ekonomikoa), Merkatarien elkarteak.		
Finantziaketa:	Udala, Eusko Jaurlaritzak (Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila)		